

Berako Maratoi Erdia apirilaren 15ean → 43

Udaberri-udako moda → 11-19

SARA-LESAKA → 10
Gazte martxa apirilaren 6, 7 eta 8an

NARBARTE → 33
Nasursaren zerbitzua bermatzeko eskatuz

LEITZA → 40
Herri krosa apirilaren 21ean egingen da

BAZTAN → 42
Baztandarren Biltzarrako kartel lehiaketa abian

Jean DITHURBIDE Erresidentzia
Dependentzia duten adinekoentzako bizilekua



Sarako bizileku berrian 111 lagunendako tokia dute

Sartzeko Sarakoek dute lehentasuna baina inguruko herrietakoek ere hartzen dituzte, «izan hegoaldekoak edo iparraldekoak». Horixe azpimarratu du Battitt Laborde Sarako auzapezak

→ 4-5

ELKARRIZKETA → 3



Berako Euskalduna ostatu-jatetxeak aurten 100 urte

1912ko Sanestebenetan ireki zen dendak Casa Agustina zuen izena. Fernando Elgorriagak kontatu digu historia.

Maite LAKAR | ahozko ondarearen biltzailea



«Gizartearen esku utzi nahi dut bildutako memoria historikoa»

Nafarroako hainbat herritan bildu ditu xaharren ahotik hamaika istorio eta kontakizun. Donezteben aurkeztu ditu berriki.

→ 27

MUS TXAPELKETA

Xorroxin, Xaloa eta TTIPI-TTAPAREN aldeko Mus Txapelketaren finala apirilaren 14an Sunbillan, arratsaldeko 4etan → 48



ttipi-ttapa

liderrak gure eskualdean

eta baita azterketa egiterakoan
CIESeK **Nafarroa Garaiko**
mendialdean
hartu duen
117 udalerrien eremuan ere



BESTE BATZUK	EL PAÍS	MARCA	BERRIA	GARA	D. NOTICIAS	D. NAVARRIA	TTIPI-TTAPA
5.000	1.000	1.000	2.000	6.000	9.000	16.000	29.000
irakurle	irakurle	irakurle	irakurle	irakurle	irakurle	irakurle	irakurle

mila esker ttipi-ttapa irakurtzen duzuen guztiel

SEXUAREN ARABERA

GIZONAK %48,90
EMAKIMEAK %51,10

ADINAREN ARABERA

14-24 URTE %13,60
25-34 URTE %18,60
35-44 URTE %18,30
45-54 URTE %28,20
55-64 URTE %10,30
+ 64 URTE %11,00

IKASKETA MAILAREN ARABERA

IKASKETARIK GABE %3,20
LEHEN IKASKETAK %14,90
LANBIDE HEZIKETA %20,80
BATXILERGOA %27,40
UNIBERTSITATEA %33,70

1912ko Santesteban bestetan ireki zen Berako Casa Agustina. Hain zuzen, Jose Elgorriaga eta Agustina Irazoki senar-emazteek ireki zuten eta emakumearen

izena hartu zuen. Gero, honen semeak, Eugenio Elgorriagak eta Micaela Goienetxe emazteak hartu zuten ardura. Ehun urte beranduago, Jose eta Agustinarekin biloba

eta Eugenio eta Micaelaren semea den Fernando Elgorriagak eta honen emazteak, M^a Consuelo Tombok kudeatzen dute Euskalduna ostatu-jatetxea.

Fernando ELGORRIAGA | Berako Euskalduna ostatu-jatetxeko nagusia

«Sanestebanetan zerbait berezia egin nahi dugu 100 urteak ospatzeko»

Aitor AROTZENA | BERA

Ehun urteko ostatu-jatetxea. Erraz erraten da...

Bai. Eguneroko lanean sartuta ez diozu kasurik egiten, baina Santesteban bestetan eginen dituzte ehun urte. Ederra da. Gibeletik lan handia dagoela erakusten du. Hori dela eta, aurtengo Berako bestetan zerbait berezia egin nahi dugu, musika paratu edo zerbait. **Casa Agustinatik Euskaldunara... Izenaz gain, zer gehiago aldatu da ehun urteotan?**

Hasiera batean betiko *ultramarinos* denda horietako bat zen, bakailua izaten zuen saltzeko eta denda horietan izaten zen genero guztia. Ostatua ere izaten zen edariak saltzeko, dene-tarik. Bi izen horietaz aparte *Elgorriaga* bezala ere ezagutu da, gure abizena delakoz eta baita *Charlot* bezala ere, gure aita zena nahiko txisposoa zelako eta bro-mak egitea gustatzen zitzaiolako. 1970 urtean berriro eta egin genuen jatetxe berria, ama zen orduan nagusia eta urte horretan jarri genion Euskalduna izena.

Aitatxi-amatxietatik zure gurasoetara eta orain zure esku... Familiari lotutako ostatua da, ez?

Beti familiarekin lotua egon da bai, eta horre-



ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

Fernando Elgorriaga da ehun urte bete dituen Euskalduna ostatu-jatetxeko arduraduna.

tan segitu nahi dugu ahal den neurrian. Gerra denboran itxia egon zen, aitzak eta Frantzialdera aldegin zutelako, baina gerra akautu eta segitu zuten, gaur arte.

Etorkizunean ere familiako tradizioak segida izanen du?

Ez dakit, ikusi beharko, Ainhoa alaba hemen ari da lanean eta Urtzi semea Mexikon dugu orain, baina hemen denean ere laguntzen du.

Garai batean ezkontzetako otorduak ere ematen zenituzten...

Bai, 1970. urte inguruan eta ezkontza aunitz ematen ziren, terraza ederra dugu-eta. Baina, denbo-

TXIKITEOA ETA ARRANTZA

«Txikiteo garaian jende xeblebre aunitz izaten zen, gaur egungoak baino txispa gehiago zuen jendea. Bertze bizimodu bat zen eta umorea ere diferentea zen».

«Ni ttikia nintzanean, Beratik Terranovara bakailu arrantzara joaten ziren arrantza-le aunitz izaten ziren eta haiek etxera bueltatzen zirenean ere giro polita sortzen zuten, kristoren juergak egiten zituzten».

rarekin, ezkontzak gero eta handiagoak dira, musikarentzat ere lekua behar da eta ez gara horretan sartzen. Gaur egun eguneko menuak, plater konbinatuak, ostatua... lantzen dugu. Eguneko martxa. Terrazan genuen toka ere famatua izan zen, igela ere izaten zen, jostatzeko tokia. Garai batean, Altzaten eta Beran izaten zen musika eta musika akautzen zenean kalejiran ibiltzen zen jendea eta hemen bukatzen zen, xaltxa ikaragarria izaten zen. Izan ere, Euskalduna bidegurutzean egon da beti, Altzate, Agerra eta Bera tartean, nolabait topagu-

nea ere bada.

Mende batean, hainbat pasadizo gertatu izanen dira...

Hainbertze urtetan pilaka anekdota gertatu dira, baina ni hemen ibiltzen zen jendearekin gelditzen naiz. Txikiteo garaian jende xeblebre aunitz izaten zen, gaur egungoak baino txispa gehiago zuen jendea. Bertze bizimodu bat zen eta umorea ere diferentea zen. Orain txikiteoa aunitz apaldu da, kasik ez da ikusten, arront aldatu da. Ni ttikia nintzanean, Beratik Terranovara bakailu arrantzara joaten ziren arrantza-le aunitz ere izaten ziren eta haiek etxera bueltatzen zirenean ere giro polita sortzen zuten, kristoren juergak egiten zituzten.

Jende ezaguna ere ibiliko zen ostatuan...

Eva Duarte eta Peron izankatu omen dira, hemen barna ibiltzen ziren eta etorri ziren gure etxera pare bat egunez. Alfredo Landa aktore espainiarra ere izan da. Beran zirklokrosa egiten zenean ere izan ditugu txirridulari ezagunak.

Zenbat lagunendako komedorea duzue gaur egun?

Jantokian 70 bat lagunendako tokia dugu eta kanpoko terrazan plater konbinatuak eskaintzen ditugu eta 20-30 lagunendako lekua badugu.



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

Joan den otsailean estreinatu zuten Sarako zahar etxe berria.

GIZARTEA → ZAHAR ETXE BERRIA SARAN

111 lagun hartzeko tokia duen zahar etxe berria zabaldu dute Saran

9,2 milioi euro gosta da obra egitea

2010eko urrian hasi ziren Sarako zahar etxe berriaren upatzen eta aurtengo urtarrilean bukatu dute. 64 Habitat Bulego erakundeak egin du zahar etxea eta EHPAD erakundeak errentan hartu dio.

Zahar etxeak funtzio publikoa du eta kudeaketaz arduratzeko zuzendari bat du, baita Administrazio Kontseilua ere. Honen lehendakaria Battitt Laborde Sarako auzapeza da.

G. PIKABEA

Sarako plazatik metro gutti batzuetara, duela urte batzuk arte Herriko Etxearen depota edo gordailua zen lekuan eta lorategiz inguratuta. Hantxe dago Jean Dithurbide Sarako zahar etxe berria. Banakako logelekin, 111

lagunendako prestatua dago, eta 60-90 langile ari dira lanean.

Duela ez aspaldi arte Sarako zahar etxea izan dena berritu beharrean, berria egitea hobeki zela iritzi zion Herriko Kontseiluko aitzineko taldeak. Eta oraingoak eman dio forma. Duela

bi urte inguru hasi ziren zahar etxe berriaren upatzen, 2010eko urrian, eta aurtengo urtarrilean bukatu dute.

Sartzerako orduan, Sarako adinekoek dute lehentasuna, baina inguruko herrietakoentzako ere zabalik dituzte ateak, izan Hego Eus-

kal Herrikoak edo izan Ipar Euskal Herrikoak. Horixe azpimarratu digu Battitt Laborde Sarako auzapezak.

Zahar etxe berria egin duena 64 Habitat Bulego erakundea izan da eta irabazi asmorik gabeko EHPAD erakundeak (Dependentzian diren Adin Zaharrekoen Aterpetze Egitura) errentan hartu dio. Zahar etxeak funtzio publikoa du eta kudeaketaz arduratzeko zuzendari bat du, baita Administrazio Kontseilua ere eta honen lehendakaria Sarako auzapeza bera da. «Zahar etxea zinez publikoa da eta Herriko Kontseiluak interes haundia du zahar etxean», dio Labordek.

9.249.813 euro gosta da zahar etxe berria egitea. Horietatik 1.690.000 euro Kontseilu Orokorra bideratu ditu; Frantziako estatuak 1.684.000 euro; zahar etxeak berak milioi eta erdi euro jarri ditu eta 64

Habitat Bulego erakundeak 4.624.000 euro.

Logelak, komunak, jantokiak, pasabideak, ateak, lorategia... Dena zaharren beharretara egokitu dute, eta langileen txokoak ere –sukaldea, biltegiak, lixatze-tokia...– teknologiarik berriekin hornitu dituzte. Hiru solairutan banatuak daude logelak, argitsuak eta kolore biziak apainduak, eta Hegoa, Iparra, Akoka eta Axuria izenekin multzoka banatuta daude. Hortaz aparte, aipatzekoa da Alzheimerren dutenendako aparteko unitatea egin dutela, 14 logelekin.

Zahar etxe zaharra ere erabilgarri zateke nahi du Herriko Kontseiluak eta hautetsiek badeute horrekin egitasmo bat esku artean: «aitzineko udal taldeak zahar etxe zaharra promotore pribatu bati saldu zion. Gure taldean, ordea, herriaren gain hartu behar genuela pen-

ATEAK ZABALIK

«Hego eta Ipar Euskal Herriko adinekoentzako zabalik dago Sarako zahar etxea»

Battitt LABORDE
Sarako auzapeza

DATUA

9,2

MILIOI EURO

kosta dira Jean Dithurbide zahar etxeako lanak. 1,7 euro Kontseilu Orokorrak bideratu ditu; estatuak bertze 1,7 milioi euro; zahar etxeak milioi eta erdi euro eta Habitat 64 bulegoak 4,6 milioi euro.

tsatzen genuen eta erosi egin genuen. Orain, hor etxebizitzak, osasun zerbitzuen gunea, liburutegi berria... egin nahi dira».

JEAN DITHURBIDEREN FILOSOFIA GOGOAN

Historia luzea du zahar etxeak Saran. Gaur egun gaztetxea dena izan zen Sarako lehenbiziko zahar etxea. 1883an Sarako auzapez izan zen Jean Dithurbide medikuak erai-kin hori eta bere ondusunak herriari eman zizkion, «herriak adineko jendearentzat zahar etxea egiteko, Sarako jendearentzat eta Saran bizi eta sortua zen jendearentzat», azaldu digu Labordek. Eta orain arte zahar etxe izan dena, 1964an egin zen, hutsetik hasita. Gerora, 1980. hamarkadan haunditu egin zen.

Eta estreinatu berria den zahar etxeari Jean Dithurbideren izena ematearen arrazoia, «bera omentzeko eta bere filosofiarekin segitzeko» izan da.

ESKUALDEKO ZAHAR ETXEAK



BERAKO SAN JOSE ZAHAR ETXEA

Mende bat baino gehiagoko historia du Berako zahar etxeak

- 40 plaza ditu eta bertze bi Karitatearen Ahizpendako gordeak. Gobernuarekin 14 plaza ditu hitzartuak.
- Egun, 27 beratarrak dira –lehenasuna dute–, Bortzirietako 5, Malerrekako 2, nafar 1 eta Irungo 6.
- Zahar Etxeak fundazioa gisa 1900az geroztik funtzionatzen du, baina badira 1883ko erregistroak.
- Pribatua da eta kudeaketa alkateak, alkateordeak eta apaizak osatutako patronatuaren esku dago.
- Udalak dirulaguntza urtero ematen du. Gobernuak iaz plaza publikoetan guztiaren %20 eman zuen; pribatuetan %1,8, aruten murriztuko duena. Gobernuak ateratzen dituen laguntzak (erreabilitaziorako, inbertsioetarako,...) gero eta exkaxagoak dira. Zerbait partikular eta komertzioak ere laguntzen dute, ekonomikoki eta produktuekin data berezietan.



ELIZONDOKO FCO. JOAKIN IRIARTE ZAHAR ETXEA

151 plazetatik %80 Baztango jendearekin

- 151 lagunendako tokia du Elizondoko Francisco Joakin Iriarte zahar etxeak.
- Adinekoen %80 Baztangoa da, %15 Bortzirriak eta Malerreka aldekoa eta gainerakoa eskualdetik kanpokoa.
- 1982an inauguratu zen zahar etxe hau. Baina orain 150 urte miserikordia etxea zen.
- 2009ko uztailaz geroztik, IDEA Innovación y Desarrollo Asistencial S.L enpresak kudeatzen du zahar etxea. Hortik aparte, patronatu bat ere badago, bailarako alkateak eta herrietako eta parrokiak ordezkariek osatua.
- 151 plaza horietatik 30 Nafarroako Gobernuak kontzertatutakoak dira. Hori da Gobernuak ematen duen dirulaguntza.



LESAKAKO ANDRA MARI ZAHAR ETXEA

40 lagunendako tokia du Lesakako zahar etxeak

- 40 lagunentzako tokia du Lesakako Andra Mari zahar etxeak.
- Bortzirriak, Malerreka, Baztan eta Gipuzkoako adinekoak daude zahar etxe honetan.
- Aspalditik dago zahar etxea Lesakan, baina 1998az geroztik gaur egungo eraikinean.
- Kudeaketa Zahar Etxeko Batzarrak egiten du: alkateak –presidentea–, hiru zinegotzik, hiru herritarrek eta Parrokiako batek osatua.
- Udalak urtero ematen dio dirua zahar etxeari eta Nafarroako Gobernuak 40 plazetatik 19 kontzertatu ditu. Baina plaza kontzertatu horietako adinekoek aruten gehiago ordaindu behar dutela adierazi digute zahar etxean. Gainerako plazei Batzarrak prezioa ez igotzea erabaki du.



BETELUKO AMMA ZAHAR ETXEA

Betelu aldea, Leitzaldea eta Tolosaldearen zerbitzura

- 45 lagun hartzeko prestatua dago Beteluko Amma zahar etxea, banakako eta binakako 15na logelekin.
- Gure eskualdetik, Leitzaldeko eta Malerrekako jendea dago zahar etxe honetan. Horrez gain, Betelu inguruko adinekoa ere badago eta Tolosalde ere adineko aunitz joaten da.
- Bi urteko obren ondotik, 2004ko apirilaren 27an zabaldu zuten zahar etxea Betelun. Aurten zortzigarren urteurrena ospatuko dute.
- Zahar etxea pribatua bada ere, adinekoen ia erdiek prestazio publikoa jasotzen dute kuota ordaindu ahal izateko. Estatu osoan 29 zahar etxeren gestioa daraman Amma taldeak kudeatzen du.



Nire txanda
Fernando ANBUSTEGI

Euskaraz bizi nahi dut!

Epa, aspaldikoak! Gaurkoan, lerro hauek aprobetxatuz gauza arras garrantzitsu bat konpartitu nahiko nuke zuek guztiekin. Aunitzetan solastu gara honi buruz, baina, zoritxarrez, behin eta berriz gai errekorrente hau aipatu behar oraindik ere. Ez da errexazaltzen, hortaz, ea hitz egokiak harpatzen ditudan erran nahi dudana xuxen eta xorrotx errateko. Sa-iatuko naiz.

«Bertze modu batean erranen dut, bertze hitz batzuekin, ulergaitza dena ulerterraza izan dadin: Euskaraz bizi nahi dut!»


Horixe zen dena. Ez dakit sobera ongi agertu dudan nere pentsamendua, ez dakit hitz egokiak hautatu ote ditudan. Agian ez. Berriz ere irakurri eta nahiko ulergaitza egiten ari zait; zuei, seguraski ere bai. Bertze modu batean erranen dut, bertze hitz batzuekin, ulergaitza dena ulerterraza izan dadin: EUSKARAZ BIZI NAHI DUT! Argi gelditu da?

Ezpala
Aitor AROTZENA

500 urteko gazteak

Nafarroaren konkistaren 500. urteurrena gogoratuz Sara eta Lesaka lotuko dituzte aste hondarrean ehunka gazteak. Atekarock kontzertuan bildu ziren Leitza bertze aunitz. Sara, Bera, Goizueta edo Elizondoko gaztetxetan ere hainbat gazte mugitzen dira. Burrenba Donezteben. Laister Gazte Eguna Lesakan. Ez daude geldirik egoteko. *Gazte gara gazte, ta ez gaude konforme!*

Nabarmentzekoak



Maite LAKAR
Malerrekako ahozko ondarea

Urtetan 54 lagunekin izandako elkarrizketak grabatu ondotik, Malerrekako ahozko ondareari buruzko lana aurkeztu zuen martxoaren 24an Doneztebeko zinemaren.



Jabier INDABURU
Etxalarako San Jose Kofradia

32 urte egin ditu kofradiako maiordomo lanean, kontuen arduradun. Berak eta Teodoro Iribarrenek lekukoa pasadiote aurten Juan Antonio Indaburu eta Jesus Altzuguren-i.



Amaia LUJANBIO
Goizuetako ikerlaria

Minbiziaren sorreraren inguruko artikulua idatzi du *Nature* aldizkari ospetsuan. Gibelego minbiziaren genetika ikeretzen ari da New Yorkeko Memorial Sloan Kettering Cancer Centerren.

Atzera begira → 2002.04.11 / TTIPI-TTAPA 323. zbk



Joku Zuzenaren lehen bilkuraz Josu Prim iruritararekin

Duela hamar urte, apirilaren 1etik 4ra Joku Zuzenaren lehen bilkura burutu zen Baztan-Bidasoaldean, Laxoa Elkartek antolatuta. Valentziatik etorritako pilotari gazteek lau egun pasatu zituzten nafarrekin esperientziak truketzen. «Elkarren arteko harremanak sendotu eta pilota modalitateak ikasi nahi ditugu», aipatu zigun Josu Prim, Laxoa Elkarteko kideak. Primek zioenez, «Euskal Herrian uste dugu pilotaren asmatzaileak garela, baina hori ez da egia. Euskal pilota deitzen duguna, ezker pareta, pala, erremontea, zesta punta... hori bai. Baina pilota hitz nagusiekin, aspalditik existitzen da».



Argitaratzailea Ttipi-Ttapa Fundazioa • **Egoitza** Andugetza, 12 • 31760 ETXALAR
Tel. (+34) 948 63 54 58 • Faxe (+34) 948 63 54 57 • info@ttipi.net

Zuzendaria Aitor Arotzena **Erredaktore burua** Gurutze Pikabea **Publizitatea** Usosa Vicente, Amaia Odriozola **Berriemaileak** Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Ainhoa eta Maider Ansa, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Iratzoki, Nerea Aitzuri, Joseba Urrotz, Irune eta Itsaso Elizagoien, Maite Oteiza, Maider Petrirena, Markel Lizasoain, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Izaskun Goñi, Joana Guereniain, Martin Bertiz, Nerea Tellebea, Martin Larraide, Juan Mari Barriola.

Fundazioaren Presidente Pello Apeztebea **Kudeatzailea** Joxemanuel Irigoien **Administrazioa** Amaia Goia

Lege Gordailua NA-1324/85 • **ISSN** 1578-4673 • **Tirada** 6.000 ale

Erakunde laguntzaileak Etxalar, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarteak, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea

2012ko harpidetza sariak

Hego Euskal Herria38€	Europa56€	Baztan, Urdazubi eta Malerreka32€
Ipar Euskal Herria56€	Amerika eta Australia124€	Leitza16€



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria



Kolaborazioak

Porraren polizia eredua

Mikel RODRIGUEZ LANDA

Nahiko hiri grisa da Irun, baina bada urtero bertako gazteek apirilean antolatzen duten jaialdi bat, 'Jaion' izenekoa, egun batez hiriarri kolorea ematen diona. Kamioi batean goituta musika talde bat dagoela, San Juan plazatik gaztetxerainoko bidea egiten dute gazteek Irungo erdigunetik, dantzan eta besta giroan. Normalean udaltzainak joaten dira segizioaren gibeletik, trafikoa kontrolatzeko gehienbat. Duela urte batzuk, ordea, gazteen harridurarako, ertzainak paratu zituzten. Espero zen bezala, besta giro haretan lekuz kanpo zegoen tentsioa sortu zuten hasieratik.

Ibilaldiaren parte batean, hagitxumore onez jaiki ez zen autobus gidari batek desfilea errespetatu gabe aitzinera egin nahi izan zuen, ia jendea zanpatuz. Horrek gazteen haserrea eragin zuen, eta autobusa-
ren gainera hurbildu ziren protesta egiteko. Gogoan dut ertzainen buruaren

erreakzioa: porra ateri, eta "me cago en diez!" 'kasti-
zo' bat botata hurbildu zen gazteengana. Besta tentsio giroan bukatu bazen ere, ez zen kolperik izan azkenean. Baina ertzain haren keinua, arrazoiz guztiz protestan ari ziren gazteengana mehatxuka hurbildu zenean paratu zuen nazka aurpegia, gure gizartean dagoen polizia ereduaren adibide garbia da. Tira, kontuan hartuta Euskal Herrian kolore guztietako poliziek zenbat hilketak, tortura, jipoi eta abar egin dituzten, Irungo detaile hori ez da preziskiki bortitzena, baina korporazio horren izatearen adibide bat da. Ertzain harrentzat gazte horiek zaborra baino ez ziren, kontrolpean mantendu beharreko koadrila zikin bat, eta horretarako ateri ziren porra. "Hemen nik agintzen dut!". Badakigu Poliziak hilketak, bortxaketak eta ebasaketak ikertzen dituela, trafikoa kontrolatzen duela eta mendian erreskateak egiten dituela, daukagun estatu egiturak betebeharrak horiek eman dizkiolako. Baina gauza guztien gainetik, botere politikoak eta, batez ere, ekonomikoak bere estatua mantentzeko tresna da Polizia, herri xehea, gaztelaniaz 'chusma' deitzen dena kontrolpean mantentzeko. Lehendik ere garbi ez bagenuen, Greziako adibideak aski argi erakutsi digu hori, Polizia baita herrialde haretara miseria eraman duten agintari ustelak herritarren haserretik defendatzen dituen azken lerroa. Epe motz eta ertainera utopikoa dirudi poliziarik gabeko gizarte bat sortu ahal izateak, baina herri justuago bat sortu nahi badugu, helburuak hori izan behar du, ezin delako indarkeriaren eta armen monopolioa korporazio zehatz baten esku utzi. Azken finean, protesta bat sortu delako horren kontra inor porra eskuan eta "me cago en diez"-ka etorriko ez den gizarte bat hobea delako.

«Utopikoa dirudi poliziarik gabeko gizarte bat sortu ahal izateak, baina herri justuago bat sortu nahi badugu, helburuak hori izan behar du»

Aita, zuk ere zaintzea gustatzen zait. Gozatu zure aitatasunaz!

Tere SAEZ (Berdintasun teknikaria)

Etxeko lanek eta pertsonen zaintzak ez daukate sexurik, beraz, gizonen lana ere badira. Egia da urte hauetan zerbait mugitu dela berdintasunaren familiako eszenalekuan, lanaren gaur egungo banaketa aldatuz, baina oraindik orain genero rola mantentzen dira. Gizonek, batzuk, egunean bi ordu eskaintzen dizkiote lan hauei. Emakumeek lau aldiz terdi gehiago. Batzuetan lan hauek %100 emakumeen esku dago. Urte hauetan 45 minutu gehiago eskaintzen dizkiote gizasemeek etxeko lanei. Bidezkoa ez den egoera honek bikote eztabaiden hirutik bat eragiten du, emakumezkoak bakarrik egiteaz aspertu egin baitira, eta argi utzi dute ez dela aski laguntzarekin, elkarbanatu egin behar dela.

Gizonak nahiz emakumeak lan hauetaz arduratuko diren berdintasun egoera batetik urrun gaudela, familia, lana eta norberaren denbora libre bateratzeko ez dago baliabide nahikorik, baina helburu hori izan behar dugu. Eta bi norabidetan ibili beharreko bidea da. Emakumeak bide horretan gabiltza, pribatutik publikorako bidean, arlo guztietan gure ahalmena eskainiz. Bide horretan guttiago ibili dira gizasemeak, oraindik alderantzizko bidea egin behar dute, publikotik pribaturantz, baina gero eta gehiago dira berdintasunarekin konprometituak daudenak. Berdintasunean aurrera egiteak arduen banaketan aurrera egitea suposatzen du. Aitatasun baimenak bultzatu behar dira, Nafarroako Gobernutik eta Herriko Etxetik kanpainak indartu, gizonak zaintzan eta etxeko lanetan ari daitezten. Haurtzaindegiak, ludotekak, jubilotekak... sendotu.. Hezkuntza Departamentuari eskatu behar zaio etxeko lanak eta pertsonen zaintza ikasgai izatea hezkuntzan. Krisiaren aitzakiarekin ezin da utzi kontziliatorako eskubideetan lortutakoa bertan behera gelditzea. Ezin da gibelerako urratsik eman!

Honek guztiak eguneroko koherentziarekin batera, egiazko lan banaketarekin batera, emakumezkoentzat bakarrik izanen ez diren kontziliario lege batzuekin batera eta gizonezkoek aldatzeko egiten dute esfortzu pertsonalarekin batera pertsona bezala hazten lagunduko gaitu. Gizon izatea oinarrian pertsona izatea baita. Honek guztiak ardurakidetzan oinarritutako aitatasuna eta amatasuna lortzen eta berdintasunerantz elkarrekin joaten lagunduko gaitu.

«Bidezkoa ez den egoera honek bikote eztabaiden hirutik bat eragiten du, emakumezkoak bakarrik egiteaz aspertu baitira, eta argi utzi dute ez dela aski laguntzarekin, elkarbanatu egin behar dela»

Irakurleak mintzo

Emakume
honek gizon
horri eskutitzaAinara MAIA URROZ
(Brno, Txekiar Errepublikak)

Itxaronaldi erromantikoa da obuluek beren buruaz beste egin aurretik ernaltzeko esperantzan espermatozoide bat noiz sartuko zain egotea.

Nik *maite zaitut*, Ainara kuttunaren edo maitearen ahotik entzun nuelarikalemanez euskalazentuz, maitemintzeko arriskua berriro ere hartu behar ote nuen zalantzan nengoan, eta bitartean gizon dohatsua lorez lore ibilki, bizitzatik bizitzara usnaka, probatzen. Ene maitea, gauza bat eskatuko dizut lehenbiziko aldiz: ez eman niri minik bihotzean, erran ondoren ez ninduzula minik egin nahi, ez jolastu nire sentimenduekin, arren, sentiberegia bainaiz eta neurtu hitzak erran aitzin, mesedez, mutiko, heldu gabeko gizon kapulu hori. (...) Itxaronaldi erromantikoa da oraindik ere zure hitzen altxorren distiraren sugarranigan pizturik mantentzea zure isiltasunean. Ahul, minez nago, larriki zauriturik, larriki maitemindurik, baina zer ote da mingarriagoa, itxaroten dudan honen sufrimendua, edo inoiz inor itxaron ez duen horren sufrimendua?

Maitasun inkondizionalaren izenean, baldintzapeko askatasuna eskaini zenidan pixka batean bakarrik hegan egin nezan, eta nik txintxotxintxo kasu egin nizun,

mutiko, aita zenari ere kasu egin nahiko nioke, baina nekaturik nago bakarrik ibiltzeaz, beti bilan, zoriontsu izan nahian. Beharbada ideia bat airean dabil, hutsean, ausentziaren amaiera, nire bertsoen etorrera eta zure poesiarena iragartzen duena.

Gauza bat eskatuko dizut, lehenbiziko aldiz, isil baino, txistuka publikoki: maite banauzu, maita nazazu osorik, eta ez zatika, argi-itzaletan dantzaz, zurrupaka; maite banauzu, mutiko, edo heldu gabeko gizon kapulu hori, maita nazazu zuri eta beltz, eta gris, eta berde, eta ilehori, eta beltzamorena... maita nazazu egunez, goza nazazu gauzez, eta goizaldean, leihoa zabal-zabalik dagoen toki honetan. Maitaite banauzu, ez nazazu ebaki, maita nazazu osorik, edo ez nazazu inola ere maita. Itxaronaldi erromantikoa honetan, negar-malko gazi hauek guztiak itsaso dira jadanik, eta tentazio hutsa da zuri beste maitasunezko eskutitz bat botila baten barruan bidaltzekoa. Ilargi bete zuria amodio perfektua bezala agertzen zait orain, zilarrezko forma biribilekin, eta egunero nire leihoaren ertzean hegalak zabaltzen ditut. Sua pizturik dago oraindik, orok urdin segitzen du izaten, goizero.

Badirudi enarak urtero itzultzen direla, baina berdinak izan arren, ez dira berberak, eta behin eta berriz errepikatzen zaidan ametsak nola segitzen duen jakin nahiko nuke. Zuk soilik eman diezaiokezu jarraipenani-



Bota bertsoa

Anjeltxo ARANIBAR (Berako bertso eskola) • Doinua: Pello Joxepe

Aste Santua

Udaberriarekin batera hemen da Aste Santua fededunekin pila bat meza prozesio ta kantua besta batean murgiltzen dira nahiz eliz nahiz konbentua aspaldian bukatua da garai bateko espantua.

Oporretan jende ugari herritik zaigu faltako eta kanpotik atzerritarak etortzen zaizkigu asko Ostegun eta Ostiral Santu eta Astelehena Bazko askok erlijioaren kontura aste bat pasako bapo.

re amets errepikakorri. (...) Orain badakit erromantizismoa modaz pasata dagoela, eta ezin dudala inoren zain egon, nire barruan dagoenaren zain egon. Ni naiz maitasuna bera, ni naizen maitasun hau hartu nahi baduzu, nere maitea eta kuttuna, oihartzun batez iristen bazaizu atzerri honetatik, Europaren bihotzetik, aberri horretara, etorri nire bila. Orain badaikit zuganantz nindoala eta zu niganantz luzarotan. Biotako inork, baina, ez genuen elkar sentitzen ezagutu aurretik; gure ezjakintasunaren azpian alaiki kantatzen zuen ziurtasun inkontziente bat zegoen. Gure ezjakintasun horrek elkartuko gintuzke berriro... izan zaitetz soilik nire lagun, nire bidaide...

Euskara
batzordeak
indartutaBortziritako Euskara
Batzordeak

Bortziritako euskara batzordeak joan den azaroan egindako bileran

batzordeak indartzeko saiakera egitea adostu zuten. Herri bakoitzean euskara batzordearekin interesa izan zezakeen jendea, eta herriko talde, elkarte eta gainerako eragileak deitu ondotik, herri herri bilera irekiak egin ziren otsailean. Guztira 70 lagunek parte hartu dute bileretan, toki ezberdinetatik etorriak: ikasketak, udalak, alderdi politikoak, jubilatuen elkarteak, dantza eta musika taldeak, kirol taldeak, herrietako elkarteak, sindikatuak...

Bileretan gaur egun mankomunitateak eta batzordeak egiten duten lanaren berri eman genuen. Ondotik, dinamika parte hartzaile baten bitartez, herrian euskarak zein hutsune eta zein lehenetasun dituen identifikatu genituen, eta horiek konpontzeko proposamenak bildu genituen, baita zeinen ardurakoak diren zehaztu ere. Azkenik, parte hartzaile guztiei galdetegi bat banatu genien, eta batzordeetan parte hartzeko aukera eman genien.

Euskarak Bortziritan dituen beharrak eta hu-

tsuneak identifikatzekoan administrazioa, lana, aisialdia, ostalaritza eta merkataritza, hezkuntza, turismoa, hedabideak... aipatu dira. Baina bereziki agertu da euskara gutxi erabiltzearen kezka, eta herriaren euskararekiko kontzientzia eskasa, eta hutsune horiek bereziki identifikatu dira lagun taldeetan, gazteengan, gurasoengan, bikoteengan... Argi gelditu da horiek hobetzeko erakundeek eta taldeek egin dezaketenen naz haratago, arduraren zati haundiena norberarengan, herritar bakoitzarengan, dagoela.

Badugu lana. Baina horretan euskara batzordeak ez ezik herritar euskaltzaleak eta gainerako eragileak inplikatu behar ditugu, auzolan hori denon ardura baita.

Bizpahiru hilabeteko prozesu hau biziki aberasgarria izan da euskara batzordeentzat, eta parte hartu duten norbanako eta eragile guztiei eskerrak eman nahi dizkiegu, batez ere ekarri dizkiguten ideengatik. Etorkizunean ere elkarrekin lanean jarraitu nahi genuke.

IRAKURLEAK MINTZO Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefona. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

e-Posta: info@ttipi.net
Posta: **Anduetzeta, 12 31760 ETXALAR**
Tel.: **948 63 54 58** Faxa: **948 63 54 57**

Senide bila



Argentinako familia batek jakin nahi du Nafarroako iparraldean zein herritan sortu zen Lorenza ZOZAYA beren birramatxi (bisabuela), 1826/30 urteetan (Baztan, Bertiz, Malerreka, Bortziriak). Zubietako Tomas HUALDERekin ezkondu zen Lorenza ZOZAYA. Norbaitek zerbait baldin badaki, deitu edo idatzi TTIPI-TTAPARA».

«Minbiziaren arloan lehenengo gauza detekzio goiztiarra egitea da. Horretan oso lagungarri izan daitezke mikroRNA geneak. Hain txikiak direnez, tumoretik odolela iragaten dira aldatutako mikroRNAk, eta, hortaz, odol azterketa bat egin da mikroRNA gene jakin bat azaltzen bada, horrek esango digu tumore bat dagoe la organismoan. Ohiko geneek ez duten abantaila hori dute».

TTIPI-TTAPA
info@ttipi.net
(0034) 948 635458

Amaia LUJANBIO
Goizuetako ikerlaria
BERRIA, 2012.03.22

11 galdera labur

Eratsundarra, sunbildarra, iruñarra...

Eratsundarra. Iruñean bizi naiz, baina eratsundarra, dudarik gabe.

Nola aurkeztuko zenuke zure burua?

Arrunt mugitua naiz, geldirik egoten ez dakiena.

Urteetan kamioi-gidari eta orain kultur dinamizatzaile. Zergatik aldaketa hori?

Kamioiarekin gauzak gaizki zebiltzan eta kamioia kentzea erabaki nuen. Aurreneko hilabetea nahiko gogorra izan zen, 16 urte kamioiarekin ibili eta gero... Baina lehendik kantu zaharren egunaren antolaketan ibiltzen nintzen hortik joatea erabaki nuen. Ea 2012a nola ateratzen den.

Zer aldatu zaizu egunerokoan?

Lehen 06:00-07:00 aldera ateratzen nintzen etxetik eta kamioiarekin pasatzen nuen egun guztia. Oraingoa arrunt desberdina da, ez dut etxetik atera eta etxera sartzeko ordurik.

Apirilaren 28an Benito Lertxundi Elizondora ekarriko duzu. Nola doaz antolaketak?

Nahiko lotuta dago. Txartelak ere salgai daude. Ea jendea animatzen den.

Nondik datorkizu euskal kantu zaharrekiko afizio hori?

Aita eta amarengandik.

Kantari bat aukeratzekotan, zein?

Benito Lertxundi. 50 urte daramazki kantatzen eta beti maila handian. Benito, Benito da.

Eta kanta bat?

Asko dira. Kanta bakoitzak badu bere esanera. *Txoriak txori* kanta bera hitz gutxiarekin begira zenbaterainokoa den. Benito Lertxundirenak esaten hasita ez nuke bukatuko. Kanta zaharretan ere badira politak, eta *Xalbadarren Heriotzean* berezia da.

Bertze afiziorik?

Kirola. Automobilismoa beti gustatu izan zait, nahiz eta ez den Euskal Herrikoa. Pilota eta herri kirolak ere asko. Niretzat mendian ibiltzea gustatzen zait.

Mendirik ederrena?

Iruñari. Bista izugarriak ditu eta leku polita da.

Amets bat?

Ibilbide berria ongi ateratzea.



Angel MARIEZKURRENA → Kultur dinamizatzaile eratsundarra

2012 / 2013 IKASTURTEA
TOKI ONA BHI | BERA - NAFARROA

LANBIDE HEZIKETA ZIKLOAK
INDUSTRIA MEKATRONIKAN
GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA
MANTENIMENDU ELEKTROMEKANIKOAN
ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA

AURREINSKRIPZIOA APIRILAREN 16tik 27ra | MATRIKULA UZTAILEAN

☎ 948 625 000 | ✉ mail: info@ttipi.net | Web orria: <http://ttipi.net>

GIZARTEA

GAZTEAK → SARATIK LESAKARA EGINEN DA MARTXA

Dena prest dago ortziraletik igandera ospatuko den Gazte Martxarako

Ortziralean Saran hasiko dira ekitaldiak eta larunbatean Lesakan segituko dute

Igandean Aberri Egunera joateko deia egin dute

TIPI-TTAPA

Egun gutti barru emanen zaio hasiera Jalgi Hadi Garaipenera gazte mugimenduak antolatu duen Gazte Martxari. Sara eta Lesaka artean egingen da eta egi-taraua ere prest dute.

APIRILAK 6, ORTZIRALA

- 15:00etan: Sarara ailegatu eta akanpatu.
- 16:30ean: Animazioa herriko karriketan: dantzariak, gaiteroak, joaldunak, ziganteak...
- 19:00etan harrera ekitaldia plazan.
- 22:00etan bertso guda.



ARGAZKIA: JALGIHADIGARAIPENERA.COM

Martxoaren 15ean Lesakan egin zuten Gazte Martxaren aurkezpena.

Eta horrez gain, hiru gune egonen dira Saran: Mintza, Dantza eta Jalgi guneak.

Mintza gunean, kaila eta sorkuntzarako aukera izanen da karpian. Kaleko graffitilarien tailerra eta sorkuntza proiektzioak egingen dira. Gisa berean, 17:30ean mahai-inguru irekia egingen da *feminista naiz eta zergatik?* izenburupean. 19:30ean solasaldia izanen da *gazteok euskal identita-*

te kulturala eraikitzen gaiaren inguruan.

Dantza gunean, gazte musika taldeak

SARRERAK

Martxako bonoak erosteko epea martxoaren 31n bukatu zen. Halere, larunbat gaueko kontzertuetarako sarrerak egunean bertan izanen dira salgai Lesakan.

ariko dira plazan. 17:30etik aitzinera, Kasu, Tooth, Humurao eta Herri Oihuarekin kontzertuak izanen dira.

Jalgi gunean, azkenik, ekintza eta algararako aukera izanen da kiroldegian. 17:30ean jokoak izanen dira: zirikatu, astindu, bilatu, lortu, asmatu... Eta 19:30ean *eraiki gazte-luaren* txanda izanen da: kutxak zintzilikatuta pilotzea izanen da kontua.

APIRILAK 7, LARUNBATA

- 07:30ean esnatu.
- 09:00etan martxa abiatu (mendian ha-maiketako eta bide-tik ekimena).
- 14:00etan Beran bazkaria.
- 18:30ean Lesakara ailegatu eta akanpatu.
- 19:30ean Maskarra-da eta Zpeziz Mukaki.
- 21:00etan gazte ekitaldia.
- 22:00etan Gaubela, Skatu, Governors, Willis Drummond eta Anai Arrebak taldeekin kontzertuak. Bonorik gabe daudenek sarrerak hamar eurotan erosteko aukera izanen dute Lesakan.

APIRILAK 8, IGANDEA

Eta igandean Independentistak Sareak deitua Iruñean ospatuko den Aberri Egunera joateko deia egin dute Jalgi Hadi Garaipenera ekimeneko gazteek:

- 08:00etan Goienetxe triki eta Sound System.
- 09:00etan gosaria eta ondotik, autobusak abiatuko dira Iruñeara.



MODA

udaberri-uda

2012



**UMEA
ANDREA
GIZONNA**



TABERNA ZAHARRA

UDABERRI-UDAKO MODA

litzen eta imakumeendako arropa-denda

Gortinak eta etiketak arropak

Mendiak (11) 1111111111
Dena Zuzenean
Tel: 945 451 1111

FANTXIKE

www.fantxike.com

Buametsako harridetan espezialistak, guztadore eta bikinietan puzkora zabala!!

Skunk funk

Billabong

Dragon

Oxbow

Quick silver

Rip Curl

Animal

Loreak Mendian

948 630 716 IBARDIN

943 626 811 TXINGUDI MERKATARITZA ZENTRUA

EMAKUMEZKOEN MODA

Hamar joera

Hona hemen denboraldi honetan karriketan ikusiko ditugun joera nagusienetako batzuk:



Preppy estiloa

Puntuzko txalekoak, blazer-rrak, poloak, tabladun gonak... nabarmenduko dira.



Pastel koloreak

lazkoekin alderatuz, aurten kolore leunagoak: limoi horia, menta berdea, lila, jai berriei jartzen zaien arrosa... nagusituko dira.



Zuria eta beltza

Pastel koloreei kontrajarritan, zuria eta beltza, dotorezia klasikoaren koloreak.




Konbinatuak

Adibidez, goiko estanpatuak, estanpatu bereko gona eta galtzekin. Diseinatzaile batzuk poltsa, oinetako eta txapelak ere egiten dituzte.



Estanpatu etnikoa

Hauekin exotismoa etorriko da. Soinekoetan, atorretan, galtzetan...



Sport

Kirol janzkiak puri-purian daude. Joera hau tarteka azaltzen da eta oraingoan txanda tokatzen zaio.



Zilborra agerian

Topak laburtzen dira eta zilborrak bistan geldituko dira. Neguan abdominalak egin ez dituenak, joera honen jai dauka.




Maukarik ez

Lepo biribila, maukarik gabea eta gerri estuarekin. Hauek dira denboraldiko soineko perfektuak.



Bermudak

Shortak alde batera utzi eta bermudei ongi etorria ematen diegu. Dotoreagoa da eta noiznahirako egokia.



1920ko hamarkadak

Diseinatzaile batzuen kasuan bertsio argiagorekin eta beste batzuen kasuan bertsio postmodernoa.

GIZONEZKOEN MODA

Estilo ugariak uda honetan

2012ko udan klase guztietako galtza zabalak eramanen dira: zuzenak, *harem*, bermudak, *shortak* edota kiroletakoak. Gizonezkoek denboraldi honetan askatasuna dute, eta hartara, txaketak eta atorrrak gorbatarik gabe eramanen dira. *Blazerrak*, puntuzko jertse eta rebekak eta zirak ezin dira faltatu.

Izatekotan, koloreak markatuko du udaberri-udako modaren berezitasuna. Tonu biziak indartsu datoz: galtza estuetan, *blazerretan*... laranja-kolore aunitz ikusiko dugu denboraldi honetan. Pastel koloreak, txuria, beltza eta *gau-urdina* ere ez dira faltako.

GALTZAK

Laranja, horia, korala, berdea eta *klein* urdinarekin tindatuko dira. Kamiseta basikoekin konbinatzeko egokiak, horrela galtzak gehiago nabarmenduko dira. Ausartenentzako proposamena: azpitik bi buelta eman eta galtzerdia pixka bat erakutsi. Azken hau denboraldiko joera nagusia da. Kasu honetan lokarriak dituzten kolore bakarreko zapa-tilak jarri.



Belzunegui DESDÉ 1999

UDABERRI UDAKO
DENBORALDI HONEN
GALTZAK

| Emakume eta gizonezkoen moda |
| Etxeko arropa |

Jaime Urrutia 44 • ELIZONDO • Tel: 948 500 056

piko piko
arropa denda

Jaime Urrutia, 23 • ELIZONDO

EMAKUMEENDAKO ARROPA
BISUTERIA ETA OSAGARRIAK
Galtzak eta atorak: 50 neurria arte

MERCHE
MODA HOMBRE

Giovani Valdi • Sandro Sellini • Caramelo gala
Serapio Mugika, 11 • 20302 IRUN • 943 612 626
www.capelettimercheirun.com



OSAGARRIAK

Kolore biziak betaurreko eta oinetakoetan

Udaberri-udako lehendabiziko joeratako bat **katu begiaren formako eguzkitako betaurrekoak** izanen dira. Koloretsuak izan daitezke eta irudi dekoratiboekin. **Oinetakoetan ere kolore biziak** eramanen dira: urdin elektrikoa, laranja, fuchsia, mostaza eta fluor koloreak.



Forma bitxiek ere izanen dira, bihotz formakoak, hexagonoak... batzuetan markoa eta kristalak kolore desberdinetakoak izanen dituzte.

Modaz pasatzen ez direnak kirolekoak dira. Denboraldi honetan kirol egiten ez dutenek ere jarriko dituzte.

Bilduma hoberenen artean *retro* joera nagusituko da. 1960. nahiz 40. hamarkadan inspiratuta, betaurrekoek garrantzi handia hartuko dute.

Bailarina eta sandalietan aukera zabala izanen da



Apaingarri eta aplikeak udako oinetakoetan present izanen dira, adibidez, takoirik gabeko sandalietan txirikordak ikusiko ditugu, harribitxiak... Zapaten estrukturari dagokionez, takoi-konpentsatua duten sandaliak poliki-poliki desagertuz joanen dira baina, hala ere, kortxoak zola dutenak eramanen dira. Kortxoa da denboraldiko protagonistetako bat, espartina eta materiala teknologikoekin batera.

HAURREN MODA

Estanpatuak eta itxura urbanoak

Orohar, erraten ahal da aurten kolore biziak, estanpatuak eta *look urbanoak* nagusituko direla. Jaio berriei aldiz, betiko koloreak eta eskuz brodatutako jazkiak jarriko zaizkie.

Udaberri eta udan sport janzkiek, ukitu surferoak dutenek, bakeroek eta gorria eta marrubia bezalako koloreek garrantzi handia hartuko dute. *Navy looka* ere ikusiko dugu, marinelen estilokoa alegia. Arrantza-galtza eta galtza motzak, kolore biziko trikota eta polo marradunekin konbinatuta, erruz ikusiko dira. 1960. hamarkadako itxura, oihal estanpatuak, gona harroak eta bonbatxoak ere ez dira faltako.



IBARDIN - BERA

Bioik

*Haur, emakume
eta gizonezkoentzat
arropa eta osagarriak*

*Promoziokoak
urte guztian zehar*



ESPRIT

DIESEL

Deaigual

BURBERRY

Pepe Jeans

GUESS

3 pommes

Levi's

DC

FREEMAN
SPORTER

TOMMY
HILFINGER

Le temps des
perises



HAURREN MODA

Informala eta eroso



Laburbilduz, hauexek dira denboraldi honetako lau joera nagusiak:

Informala: kolore blockinga eta estanpatu marradunak. 50 eta 60. hamarkadako mozketak, luzera Erdiko bakeroak... bidaletan eta surf hondartzetan inspiratutako joera da orokorrean.

Erosoa: lore estanpatuak janzki eta oinetakoetan. Neskentzako mozketa eta luzera desberdineko soinekoak eta mutilentzako kolore gorri eta berdeko *British* poloak, bakero zimur eta desgastatuekin jantzita.

Navyestiloa: zuria, gorria eta urdina dira izarrak. Oinetakoetan ere nabarmenduko da joera hau, nautiko zuri eta urdinak nagusituz.

Sport estiloa: Kotoizko galtzak eta estanpatu dibertigarriak dituzten kamisetak. Kirola egiteko eta eroso egoteko arroparik egokiena zalantzarik gabe.

0-16 neuriko umeen arropak
8-16 urteko neska mutiloetan berezituak

Bertan eskuz egindako soinekoak

Bodyak, tamako arropa, leoterdoak, galtzerdiak, esakak, oinetakoak

name it
bambolina
IDO
nike
Xti
Pangasa
Condor
Elke

DESIGUAL MARKAREN ESCLUSIBA

mirentxu

Sempio Nagikoa, 15
IFUJIN
943 818 039

Ordizia, 5
ORDIZIA
943 881 278

Marka hoberenak

Marka hoberenak guztientzako



BENAR
ileapaindegia
948 452 467
Irreola Iburte, 58 • ELIZONDO

Xanpu personalizatuk
Amorriako gabeko findagaia
2012 udaberri-uda
denboraldiko mozketak

ttipi-ttapa
Andueza, 10 | ETXALAR | 948635458

TXARTELA DOBLEAK (4 aldiz)
Kartulina berezia 300gr. + koloretan
+ BEZa bame

500
biita txartel
127€
114€ 117€ 167€

TXARTELAK (2 aldiz)
Kartulina berezia 400gr. + koloretan
+ BEZa bame

500
biita txartel
115€
100 bame 71€ • 200 txartel 88€ • 400 txartel 154€

antxordoki
ILEAPAINDEGIA eta ESTETIKA

- Aurpegiarako tratamenduak
 - Xinuraren belduzia
 - C vitamina
 - Diagnosak
- Tratamenduak termoeskimulazioaren bidez
 - Zelulitis
 - Ereduktzioa
 - Tonifikazioa
 - Sabinondoak
 - Depilazio elektriko eta zerrarekin
 - Solarium-a
 - Estrota eta bestatoko makilajeak
 - Pedikura
 - Masilkura

Aloste 3/1 LESAKA tel. 948 637 700

Kontsultatu gure esaintza berriak

ORRAZKERAK

Ile motzak gaztetzen du eta orrazteko errazagoa da


Uda dator eta orrazkera ere sasoiara egokitu nahi izaten dugu. Erosoena ile motza da eta denboraldi honetan puri-puritan egonen da. Ile motzak emakumea gaztetu egiten du eta gainera orrazteko errazagoak dira. Udan ile motzari ukitu informalagoa edo dotorea-goa ematen ahal zaio.



Ile motzarekin ez bazara ausartzen eta ile luzea nahiago baldin baduzu, mototsa edo txirikorda modernoak egiten ahal dituzu. Mototsak goian, erdialdean, alde batean, ile nahasiarekin... Txirikorda edo trentzak ere gehien gustatzen zaizun bezala egiten ahal dituzu.

KOLOREZERTZELADAK

Ile guztia kolore batez tindatu beharrean, kolore zertzeladak ematea egonen da boladan, hartara ilea ikusgarri eta originalagoa bihurtuz.



Kopeta-ilea ere moda-modan dago. Mozkera irregularrarekin koloretako metxak eman eta ukitu berezia lortuko duzu.

Ile motza da denboraldiko joera nagusia. Kopeta-ileari kolore ukitu bat eman eta orrazkera desberdina izanen duzu. Ez a ile guztia tindatu beharrik, kolore bainua eman edo nabarmendu nahi duzun ile-xerloa bakarrik. Hala ere, ausarta baldin bazara ile guztia tindatzen ahal duzu, nahi izatera bolumena emanen duten kolore naturalak aukeratuz.

GIZONEZKOAK

Betiko mozkera klasikoez gain, denboraldi berrian, kapak eta asimetriak boladan egonen dira. Hori bai, mozkera beti aurpegiaren forma eta ile-testuraren arabera izanen da, hau da inoiz ahanzi behar ez den printzipioa. Adibidez, aurpegi borobila dutenentzat ile rapatua ez da egokiena izango, beraz, nahiz eta modan egon ez da komeni horrela moztea.

Eramanen den bertze joera bat honako hau da: lateralak motz-motzak eta goiko alde luzeagoa. Orrazkera honek ez du moldaketa berezirik eskatzen eta horregatik da hain eroso udarako.

Eta aurpegi simetrikoagoa dutenentzat bolumen gutiko orrazkerak dira egokienak, erdialdean forma asimetrikoa dutenak.



MAKILLAJEA

Lur eta melokotoi koloreak udarako egokienak

Denboraldi honetan makillaje naturala eramanen da batez ere. Lur eta melokotoi koloreak izanen dira udarako egokienak, pastel koloreekin konbinatuak: berdea, arrosa, morea, banilla...

Hala ere, atentzinoa ematea gustatzen bazaizu, fluor koloreak ere erabil ditzakezu. Denboraldiko izarretako bat menta berdea da. Gauerako aliatua *smokey eye* delakoa izaten segitzen du. Eta piska bat berritu nahi baduzu, urre eta zilar kolorearekin konbinatu. Begietako itzalak ez bazaizkizu gehiegi gustatzen, *eye-liner*-a erabili. Hau lodia izan dadila eta nahi izanez gero begi ixkinetan bi marra egin.



Bambi begiek ere iraunen dute daukaten *pin-up* eraginarengatik. Melokotoia eta arrosa koloreko ezpainetakoak izanen dira eguneko makillajerako egokienak. Gauerako, aldiz, gorri bizi-bizia. Eta oraindik ez ahaztu *binilo efektuko* makillajea.

MANIKURA

Artea azazkaletan

Azazkalek protagonismoa hartuko dute udaberri-udan bonetan eta koloreak eta marrazkiak nagusituko dira. Hona hemen joera nagusienak:

Print animal: hau egiteko pazientzia eta imaginazioa behar dira. Neurri desberdinetako pintzelekin kolore desberdinak konbinatu.

Zuria eta beltza: zuria eta beltza betiko basikoak dira eta udan ere ezin falta. Base zuria edo beltza aukeratu eta nahi dituzun marrazkiak egin.

Marmol efektua: ukitu sofistikatu eman du eta azazkalak finagoak egiten ditu. Efektu hau lortzeko koloreak nahasi eta ukitu asimetrikoa eman behar da.

Manikura abstraktua: hau lortzeko pazientzia handia behar da. Kolore desberdinak erabiliz forma basikoak marraztu.

Marrazki bizidunak: Ukitu dibertigarria emateko. Egunez erabiltzeko aproposagoa da.

Loreak: denboraldiko pastel koloreekin konbinatzeko egokiak.

Tatoak: Nahiz den koloreko basea pintatu eta txotx batekin gaintetik marrazten dira.



948 451 841
669 552 283
Donostia

BINHUA
ILEA PAINDEGIA

AINART
ILEA PAINDEGIA
Ebaileren, 67 behea • LEITZA • 948 510 197

lobo orlea
ILEA PAINDEGIA

leopaindegia
Buru, garbitzeko
cutikak zirkulu
masaje sistemarekin
Makillaje zerbitzua
Keratina tratamendua

T 948 560 390 | ELIZONDO
Pozaburu, 9 behea
info@loboorlea.com
www.loboorlea.com

Gorputz liraina lortu nahi duzu?

ESTIBALIZ
estetika zentrua
LIPOKABITAZIOA

40%
urteko deskontua

*Lipokabitzaren alternatiba,
egia eta eraguz*

Ordua eskatu: 948 581 360 | 604 738 444
Kaibador, 14 | ELIZONDO

GIZARTEA

ESKUALDEA → 2011KO AZAROAREN 5 ETA 6KO UHOLDEAK

Uholdeek sortutako kalteen %82 udalek bere gain hartu beharko dutela salatu dute

Gobernuak kalteen %18 bakarrik ordainduko du

TIPI-TTAPA

2011ko azaroaren 5 eta 6an, Nafarroa, Gipuzkoa eta Lapurdin izan ziren euriteek kalte handiak eragin zituzten. Eta kalte horien inguruan, udalen eskaerei Nafarroako Gobernuak ez die la erantzunik eman salatu dute Mendialdeko udalek, eta gaineratu dute, prentsa bidez jakin dutela 88.782 euroko laguntza izanen dutela, kalteak 471.000 eurotan baloratu diren bitartean.

Egoeraren berri emateko, agerraldia egin zuten inguruko hainbat udal ordezkari martxoaren 16an. Zehazki, Baztan, Leitza, Lesaka, Lakuntza, Goizueta, Igantzi, Etxalar, Uhartel eta Aresoko udalek sinatutako idatzia agertu zuten eta gehiagok babesa adierazi diete: Bera, Basaburua, Betelu, Arantzeta, Larraun, Etxarri Arantzeta, Iturmendi, Arbizu, Altsasu, Urdiain, Bakalku, Olazti, Ergoiena, Arruazu, Irañeta, Ihabar, Lekunberri, Arakil, Irurtzun eta Imotzko Udalak.

Prentsaurrekoan azaldu zuten, «eremu hauek jasan zituzten kalteen neurriak Espainia eta Frantziako Gobernuek estatu mailako laguntzak jaso ahal izateko hala eskatu zuten lurraldeak eremu katastrofiko bezala izendatzea ekarri zuen. Horrela ger-



ARGAZKIA: NOTICIAS

Eserita Ur Algero eta Pablo Miranda, Areso eta Goizuetako alkateak, hurrenez hurren. Gibelean, ezker-eskuin, Lazaro Goikoetxea (Araitz), Juan Mari Barriola (Leitza), Mikel Ortega (Baztan), Peio Etxabide (Lesaka), Anjel Urtxegi (Igantzi) eta Migel Mari Irigoien (Etxalar).

tatu da bai Gipuzkoa eta bai Iparraldean ere. Nafarroako kasuan bereziki ipar-mendebaldean kokatuta dauden udalerriek eragin zuten euriteak eta orain arte herri hauek izandako kalteei ez zaie inolako erantzunik eman Nafarroako administrazioaren partetik». Lau hilabete baino gehiago igaro direnean mendialdeko udalek adierazi dute «orain artean izan ditugun bileretan ez zaie inolako erantzunik eman gure eskaerei».

Bilerak Gobernuko hainbat sailekin egin dituzte (tokiko administrazioa, ura eta ingurugiroa, abeltzaintza azpiegiturak...) baina «inork ez du bere gain hartu sortutako kalteei erantzuteko ardurarik eta oro har erantzun orokorra ardurak berte leku batzuetara desbideratzea izan da, azken finean egoerak sortu duen karga guztia Udalen gain utzi». Udalen arabera, «alde bate-

UDALAK GOBERNUARI
«Udalek jasandako kalteen %82ari beren kabuz egin beharko diote aurre, eta Gobernuaren ekarpena bere irudia garbitzeko keinu hutsa bertzerik ez da»

Mendialdeko udalak

tik, kalteak hainbertzerako ez direla izan esan zaigu, baita gisa honetarako larrialdiei aurre egiteko dirurik ez zegoela

ere». Hala, kaltetutako udalek argi utzi nahi izan dute «jasan ditugun kalteak handiak eta esanguratsuak izan direla ditugun baliabideentzat, eta administrazioak ezin duela berte alde batera begiratu». Horrez gain, Parlamentuan emendekin bidez kaltetutako herriek laguntzeko atal bat osatzeko eskaera atzera bota izana ere kritikatu dute. «Larrialdietarako dirurik ez dago horretarako erabaki delako, eta are-

salagarriagoa dena ez dugu kaltetutako herriek laguntzeko borondateirik ikusi». Egoera aztertu ondoren, Baztan, Leitza, Lesaka, Lakuntza, Goizueta, Igantzi, Etxalar, Uhartel eta Aresoko Udalek bilera bat eskatu zuten Gobernuko lehendakariarekin arazo bideratzeko asmoz.

Erantzuna prentsa bidez iritsi zaie, martxoaren 7an jakin baitzuten 88.782 euroko laguntza onartu dela kaltetutako herrien artean banatzen. Kontuan izanda jasandako kalteak 471.000 eurotan baloratu direla, «diru kopuru hori nabarmenki ez da nahikoa, eta ez du inondik inora konpondu beharreko azpiegiturak konpontzeko biderik ematen», diote udal ordezkariak. Eta gaineratu dute, udalek jasandako kalteen %82ari beren kabuz egin beharko diotela aurre, eta Gobernuaren ekarpena «bere irudia garbitzeko keinu hutsa bertzerik ez dela, zureria politikoa 'Iparraldeko nafarretaz' gogoratzeko».

PRIM, c.b.
Bizkortze Zentroa

- Kiroi Fisioterapia
- Osteopatia
- Masaiak
- Trafiko istripuetan aholkularitza
- Istripu eta osasun aseguruak
- METODO BERRIA

Umeentzako arnas fisioterapia

Itzea 1, behea • Tel-Fax: 948 625206 • BERA
Colin Pas. E - atzea • Tel-Fax: 943 632050 • IRRUN

LABE ZAR
Tel: 948 631 076 - BERA

Javier Manterola
Tuberculosis antolatzailea
Burgintza • gasa
kalafaktas
Tfno: 629449902 • BERA

OSPAKIZUNAK → APIRILAREN 16TIK 22RA

Aste kulturala antolatu dute San Jose zahar etxean

Egitarau osatua antolatu dute apirileko hirugarren asterako

TTIPI-TTAPA

Ekitaldiz beteriko astea antolatu dute San Jose zahar etxean. Apirilaren 16tik 22ra, gisa guztietako ekimenak izanen dira: argazki erakusketa, tailerrak, antzerkiak, kantaldiak, bertsolariak...

• **Apirilak 16:** argazki erakusketa Rosa Mari Errandonearen eskutik. Berako lehengo argazkiak paratuko dira zahar etxean. 17:00-etan zabalduko da erakusketa baina aste osoan zahar etxean egonen da jendeak ikusteko, 15:00etatik 17:00etara eta 18:30-etik 20:00etara.

• **Apirilak 17:** talo tailerra Maria Mitxelenarekin, 18:00etan. Gehieenez zortzi lagun apuntatzen ahal dira. Izenematea: 948 630104.

• **Apirilak 18:** Ilargi beatea sorginen larrean taldearekin antzerkia, 17:00etan.

• **Apirilak 19:** Irazoki bikote alai-rekin kantaldia, 17:00etan.

• **Apirilak 20:** bertsolariak. Garaxi Taberna aurkezle dela, Patxi Castillo, Iban Garro, Aitor Elexpuru eta Julen Zelaietarekin bertso saioa izanen da, 17:00etan.

• **Apirilak 21:** mojen antzerki komikoa Emaitza taldearekin, 17:00etan.

• **Apirilak 22:** Araitz eta Martaren eskutik, kantaldia gitarra eta flautarekin, 17:00etan.

Harriak ebatsi dituzte San Miguel Zubitik

Bera eta Lesakako udalek bere kezka eta haserrea agertu dute, norbaitek harriak ebatsi dituelako Bidasoaren bi aldeak lotzen dituen San Migel zubi historikoan. Erdi Aroko zubia baita, «lapurreta hau gure lurreko ondare arkitektonikoaren kontrako atentatu bat» dela uste dute bi udalek.

Hori dela eta, herritarrei dei egin diete falta diren harri horiek aurkitzen laguntzeko, eta erne egoteko berriz horrelakorik gerta ez dadin. Eta azioa egin dutenei ohartarazi diete bidezkoak diren ondorioak etortzen ahal zaizkiela hortik eta behar den tokietan salatuko dutela.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Mendi itzuli gidatu gehiago bunkerretan barna

Oraindik aukerarik izan ez duenarentzat edo errepikatu nahi duenarentzat, apirilaren 7an, 22an eta 29an herrian dauden bunkerretan barna mendi itzuli gidatuak egingen dira. Izen-ematea 012 telefonora deitu beharko da eta hitzordua egun horietan 10:00etan egin da Ibardingo Gorria Bentan. Euskaraz eta gaztelez izanen dira eta mendiko botak eta linterna eramatea beharrezkoa izanen da. Helduek bortz euro eta 16 urtez beherakoek dohainik izanen dute.



ARGAZKIA: GURE TXOKOA ELKARTEA

Mus txapelketa euskarazko hiru komunikabideen alde

Xorroxin, Xaloa eta TTIPI-TTAParen aldeko mus txapelketan, sei bikotek parte hartu zuten. Gure Txokoa Elkartearen laguntzarekin antolatu zen mus txapelketa eta Asier Saragueta eta Patxi Artieda izan ziren txapelak (Zalain jatetxean bi afari). Bigarren sailkatutako bikotea Jabier Etxegarai eta Anjelxo Aranibarek osatu zuten (Zubiondo jatetxean bi afari) eta hirugarrena Juana Mari eta Jabier Altzugarrenek (gazta eta bi botil ardo). Lerro hauen bidez, gure eskerrak bai Gure Txokoa Elkarteari, bai parte hartu zuten guztiei eta bai sariak eman dituzten guztiei ere.

Zozketa ikastolan

Labiaga ikastolak ekimen berria paratu du abian. Guraso batek eginda-

ko donazioari esker, Land Rover bat bere atoiarekin zozketatuko du ekainaren 15ean. Honetara-

ko, boletoak paratu dituzte salgai, *boleto bat euro bat* lelopean Baztan-Bortziritako herrietan.



LESAKA

EKITALDIAK → 'MUGI HADI GAZTE!' LELOPEAN EGITARAU ZABALA PRESTATU DUTE

Gazte Eguna antolatu du Gazte Asanbladak apirilaren 14an

La Pulqueria, 3gabe2, Glaukoma Sound System eta DJ Bull ariko dira gauzez

Aitor AROTZENA

Gazte Asanbladak *Mugi hadi gazte!* lelopean Gazte Eguna antolatu du apirilaren 14rako. 09:00etan txupinazoa eta diana-kalejira egingen da. 10:30ean gosaria eta hasiera ekitaldia. 11:30ean murala margotzea eta paella txapelketa. 14:00etan epaileek paella dastutuko dituzte eta gero

bazkaria egingen da. Txartelak 5 eurotan daude salgai. 17:00etan jokuak izanen dira eta 19:30ean Debako Elektrotxarangarekin Gazte Eguna bukatzeko, 23:00etan kontzertuak izanen dira frontoiaren gibekeko aparkalekuan. La Pulqueria, 3gabe2, Glaukoma Sound System eta DJ Bull ariko dira. Sarrera 5 euro kostako da.

Taldekideak modu berezian (zapela, peluka, mozorroa...) agertzeko eskaria egin dute antolatzailerek eta txoznetan bokadilloak izanen direla oroitarazi.

Sanferminetako kartel eta azalak ikusgai

Apirilaren 3tik 15era ikusgai izanen dira Betti Gazteren egoitzan Sanferminetako kartel eta azal lehiaketara aurkeztutako lanak. Norbere gustokoaren aldeko bozka emateko aukera izanen da, horretarako espres jarriko den kutxan. Botu gehien jasozen dutenak izanen dira irabazle.

Abesbatza Aste Santuan

Abesbatzak emanaldiak eskainiko ditu elizan ortzegunean 19:00etan, ortziralean 18:30etan eta larunbatean 21:00etan.

Jon Olaizola txapeldun Zizurren

Bigarren urteko kadetetan txapeldun suertatu da Jon Olaizola Zizurren. 18-9 irabazi zion finala Bakaikoari.



Heriotza

Elias GARRALDA

Herrian sortutako margolari handia Gironan hil da

1926ko otsailaren 16an jaio zen Lesakan Elias Garralda Altzugarai eta martxoaren 6an hil zen Oloten (Girona), 86 urte zituela. Ttikia zenezan, gerra garaian, gurasoekin batera erbeste-joan behar izan zuen. «Nere aita ez zen politikaria, baina maisua zen eta ez zien arreta handirik jartzen gurutzeei, himnoei eta banderei, beraz irabazleei ez zitzaion sobera gustatzen» zioen. Gerra ondoan, familia Katalunian laketu zen, Gironako Olot herrian eta han hasi zen bere margolanak egiten Elias Garralda. 22 urterekin egin zuen lehen erakusketa. Azkeneko mende erdiko paisaia margolari onenetakotzat zuten eta oraindik ere, egunero-egunero hartzen zituen bere pintzelak eta bere margoak. Bidasoa ingurura bueltatzea gustatzen zitzaion eta bertan, erreka bazterren batean, bere margolanekin segitu. Adiorik ez!

Ba al zenekien...

Jose Mari Etxepeteleku eta Begoña San Julian senar emazteek irabazi zutela martxoaren 23an Arranon TTIPI-TTAPA, Xorroxin eta Xaloaren alde jokaturako mus txapelketa.



UTZITAKO ARGAZKIA

Beti Gazteko mendi taldea Santiago Bidera bueltatu da

Joan den urtean hasitako Santiago Bideari segida emanez, martxoaren 25ean Iruña eta Gares arteko bidea egin zuten 50 bat mendizalek Beti Gazte elkartearekin. Aurtengoan Logroñoraino ailegatzeko asmoa dute lau etapatan. Hurrengo, Gares eta Aiegi artekoa izanen da, maiatzaren 6an.



GIZARTEA → SAN JOSE ZURGINAREN KOFRADIA

Maiordomo berriak izendatu dituzte San Jose Kofradian

153 urte egin ditu aurten Kofradiak

Irune eta Itsaso

San Jose Zurginaren kofradia 1859an sortu zen eta 153 urte bete ditu aurten. San Jose eguna besta denean egun horretan egiten dira urteko kontuak, eta bertzelahurrengo igandean. Kofradiako kide bat hiltzean, meza ateratzen zaio eta horren kontuak ere egiten dira egun honekin.

Aurten, San Jose egunean, kofradiako bazkide bakoitzak bere kuota ordaintzeko aukera izan zuen. Jabier Indaburu eta Teodoro Iribarren izan dira orain arteko maiordomoak, kofradiako kontuez arduratu direnak: Jabierrek 32 urte egin ditu karguan eta Teodorok 16. Baina aurten kargua utzi dute eta Juan Antonio Indaburu eta Jesus Alzuguren izanen dira maiordomo berriak.

Sagardotegira

Martxoaren 17an herri-

ko 44 gazte Hernaniko Akarregi sagardotegira joan ziren. Eguerdian herritik autobusean joan eta goizaldera bueltatu ziren.

Mus txapelketa

Xorroxin, Xaloea eta TTIPI-TTAPAREN aldeko mus txapelketa egin zuten martxoaren 24an Elutsa ostatuan eta zortzi bikote aurkeztu ziren. Horien artean, txapel-dunak Jabier Galarregi eta Iñaki Danboriena izan ziren (afaria Elutsan) eta bigarren sailkatuak Eneko Telletxea eta Xabier Etxarte (bi botil ardo).

Turismo bulegoa

Aste Santuko oporrak direla aprobetxatuz, turismo bulegoa zabalduko da ortzegunetik astelehenera. 11:00etatik 13:00etara eta 18:00etatik 20:00etara egonen da irekia.

Astea Santua pasatzean itxita egonen da, baina uztailaren 17tik abuztuaren 17ra berriz irekiko da, asteartetik ortziralera arratsalde, la-

runbatetan goiz-arratsaldez eta igandetan goizez.



ARGAZKIA: IZARO IRIBARREN
Jabier Indaburu eta Teodoro Iribarrenek urteak egin dituzte San Jose Kofradiako maiordomo lanean.



ARGAZKIA: LANDAGAIN ESKOLA

Hirugarren zikloko ikasleak Izaban

Martxoaren 4tik 9ra eskolako 3. zikloko 9 ikasle Izabara joan ziren, Bortzrietako lau eskola publikoetako ikasleekin. Egun batean izan ezik, gainerakoetan eskiatzeko aukera izan zuten goizez, eta arratsalde bertzelako jarduerak egin zituzten.



ARGAZKIA: VENANCIO ELIZAGOIEN

Larraburu urdaiazpiko txapelketa

Martxoaren 24an Larraburu jubilatuen elkarteak urdaiazpiko txapelketari akabera eman zion. Museko irabazleak Santiago Olasagasti eta Daniel Iparragirre izan ziren eta partxisean Mertxe Santesteban eta M^a Isabel Berrueta. Hiru irabazleez gain, Daniel Iparragirre ordezkatzuz, Enkarna Iparragirre ageri da argazkian.

BERTAKO DJak BERTAKO JEN DEARENTZAT
Ezkontzak + Ekitaldiak + Bestak + ...
Aurten eskaintza bereziak

endara
deejays

edj's
www.edjss.com

Informazio gehiago: 605 762 880
www.endaradeejays.com

ARANTZA

MENDIA → MENDIAZ GOZATZEKO AUKERA

Maiatzaren 20an eginen da Arantzako seigarren Mendi Itzulia

Ekaitza Elkartea hasia da antolaketako lehenbiziko urratsak ematen

latzen du elkarteak. laz, halaxe egin zen.

Ekaitza elkarteko mendiko batzordea burubelarri lanean ari da ekintza prestatzen eta mendian ibiltzea gustokoa duena ongietorria izanen da.

Nerea ALTZURI

Bi urtetik behin egiten den hitzordua dugu Arantzako mendi ibilaldia eta aurtengoa maiatzaren 20an izanen da. Euskal Herriko edozein txokotatik mendizale talde ederra etortzen da eta ingurukoek ere izugarriko ohitura dute itzuli hau egiteko.

Mendi elkarteek edo taldeek mendi ibilaldien egutegia ikasturte hasieratik finkatzen dute. Herrikoa ere hortxe dago egutegian. Hasierako bi edizioak elkarren ondotik egin baldin baziren ere, 2003an eta 2004an, gero bi urtetik behin egitea erabaki zen. Itzulia tokatzen ez den urtean, Goiztarako ibilaldia anto-

JUNTA ALDAKETA

Elkartetik atera gabe, martxoaren 16an batzorde aldaketa egin zen. Bi urte pasatu ondotik, arduradunak aldatu dira.

Junta berrian honakoak daude: Gregorio Mitxelena, Juan Migel Almandoz, Belen Mutuberria, Asier Etxepeteleku, Xabier Zugarramurdi, Ixido-

ro Goia, Iñaki Alustiza, Joxe Ramon Amoros, Maixe Fagoaga, Aitor Teletxea, Luzia Iparragirre eta Xatur Larralde. Eta atera direnak Sonia Itu-

ria, Elixabet Iturria, Aintzane Iturria, Jaione Irigoien, Gotzon Arenas, Martxelo Jorajuria, Ainhoa Alzuri eta Mikel Leiza dira.



ARGAZKIA: G. PIKABEA

Gazte Martxarako gonbitea

Apirilaren 6 eta 7rako Jalgi Hadi Garaipenera gazte dinamikak antolaturiko mendi martxako aurkezpenak Euskal Herriko herri aunitzetan egin dira. Arantzako martxoaren 23an Bortziritetako aurkezpena egin zen, tailer, kalejira eta afari arteen. Giro polita sortu zen eta Gazte Martxarako gonbitea ere egin zuten.



ARGAZKIA: I. UGALDE

Mozorro besta giro ederrean

Martxoaren 17an, egun osoz mozorro bestako ekitaldiak izan ziren. Aizkora apostua, bertso bazkaria, dantza saioak, Agerralde... Irujian ikusten duzuen kontuan hartuz, aipagarria da herriko, Irurtzungo eta Lizarrako dantzariak egindako emanaldia. Hurbildu zen jendea aunitz gustatu zitzaion, saio hagitz ederra izan zelako.

ERANDORRA, S.L.
BILTEGIA 948 630 102 • FAUSTINO 647 810 152
Bidaxoa, 76 - atea 21-22 • 31780 BERA

USOA
Nekazaritza kooperatiba
Bertan egindako perisuaik, bertze markak eta ekologikoak
Ongarriak - Burdin tresnak
Injektoreak - Edarriak - Hazia
Botikak (jenezistarekin)
Etxez etxeko banaketa egiten da
Kalifikazioa eta ibigailuendako gasotza
Tef. eta Faxa: 948 63 52 14 • ETXALAR

ERROTAZAR
harategia
Berrak
produktuak
Etegera, 3 - BERA
Tef/Faxa: 948 630 058

arrapak - mandulak
muntak - mandulak
toallak - kortinak
alfajres
Goya
Kantaria, 1 - 31780 BERA

ANTZUZELAI
ZINTARRIAK • ADOKINAK • ZOLAK
Tef: 948 631 317 • Faxa: 948 631 567
Irujoa erria - BERA
www.antzuzelai.com
www.antzuzelai.com
Antzuzelaia, angeluak, ome antzuzelaia, lehoak, atxak, arzuak, pizanak, berrinak, edarriak, moldurak, zokaloak, hilarrak, murrizkiak

GIZARTEA → LITERATURA ZABALTZEN

Eskolako liburutegia herritar guztien eskura paratu nahi da

Hiru urteren ondotik bukatu dira eskolako liburutegia antolatzeko lanak

Joxean ORTEGA

Igantziko eskolan liburutegia badugula bagenekien, baina hiru urte pasatu ondotik, liburutegia antolatzeko



ARGAZKIA: JOXEAN ORTEGA

Eskolako neska-mutikoak liburutegian.

liburutegia herrira zabaldu nahi da, nahiz eta honetarako lehenik lantxo batzuk egin beharko ditugun denon artean... Animo eta leerro hauen bidez, eskerrik asko lan honetan parte hartu duten guztiei!

Kinto Bestak prestatzen

Kinto Besta antolatzeko bilera laster deituko du Kultur Batzordeak. Oroitu, hilabete honetan eginen dela.

Kantu zaharren bazkaria

Larunbat honetan, apirilak 7, kantu zaharren bazkaria egingen da Baratzondon. 14:00-etan egina da hitzordua.

DATUA

3.000

LIBURU, DVD, CD, BIDEO
ETA ALDIZKARI
sailkatu dira
eskolako liburutegian.

egin beharreko lan guztiak erabat bukatu ditugula erran behar dugu.

Irakasle, guraso eta ikasleen lana ezinber-

tzekoa izan da helburuak lortu ahal izateko. Ordu pila sartuta lortu da: ia 3.000 liburu, DVD, CD, bideo eta aldizkari sailkatu dira.

Orain gure liburutegiaz gozatzeko tenorea heldu da.

Eta hemendik guttira hurrengo pausoa emanen da: eskolako

J. RAMOS
zolak akutzilatatu eta barnizatzen ditut.
Sakelekoaz: 617 836 073 - LESAKA

BERA Zere ingurera klase gaztelako txakletz (kometra, zioarra, ermirra, babaxo...) eta piratai sagatuz garbitu nahi baduzu, deltu! Termite eta Pipien tratamenduetan.
GOIKO Inbentario Gertakarien Produktuak
Tel: 948 627 519 • Zuzen, 40 6 • BERA

BIDASOA
BIDASKA - BIDASOA
BIDASOA - BIDASOA
BIDASOA - BIDASOA
T.F. 858 971 442
BERA

HERMANOZ TELEFONIA
HC
ERAKUNTZA LANAK OIORKORREAN
Zuzenberritasun, aukaritasun, konunak...
Abitatzeak, terrazak, garajeak...
HC BERA (Nafarroa)
670 064 744
948 630 554
zibertelefonos@gmail.com

TREKU JATETXEA
Arpide bidea. 15 • OIARTZUN • 943 49 52 50
Abitatzeak eta menuak 15€

KOXKONTA Jatetxea
Ezkontakondak barnatzen dituzte | Abantza-zerbitzuak
Ezkontakondak eta abantza-zerbitzuak | Koxkonda |
SAGARDOTEGIA IREKIA dago
Sagardotegiko menuak aukeran
10€ gutxiago, egunero, eguerditan irekia
Gauetz irekia
atzipa eta kaninboletan
Sagardotegia ere!
T. 948 627 519 • 948 627 503 | Otsango, 1 • LESAKA

SUNBILLA

GIZARTEA → ULIBELTZAK ELKARTEA

Lau bazkide berri sartuta 200 kide ditu gaur egun Ulibeltzak Elkarteak

Zuzendaritza berria izendatu dute elkarteak

Maider PETRIRENA

Aitzineko alean aipatu bezala, martxoaren 17an Ulibeltzak Elkarteak ohiko batzarra egin zen. Zazpi puntu izan ziren aipagai eta garrantzitsuenak junta aldatzekoak izan ziren. Guztira 36 bazkide elkartu ziren eta bakoitzak zortzi bazkideri botoa emateko aukera izan zuen. Botoak zenbatu ondotik, ondoko hauek atera ziren junta berriak: Juan Tomas Latasa (17 boto), Jose Migel Zelaieta (16 boto), Bixente Ibarra (16 boto), Juan Migel Urroz (15 boto), Juan Jesus Gaztelumendi (15 boto) eta Jesus M^a Jorajuria (14 boto). 13na botorekin berdinduta gelditu ziren Xanti Arretxea, Josune Agirre eta Joana Hernandezena eta berriro ere deseparterako botazioa egin ondotik, boto gehien hartu zituztenak Xanti Arretxea eta

Josune Agirre izan ziren. Beraz, joana juntatik kanpo gelditu da.

Bilerako bertze gai garrantzitsua bazkide berrien sarrera izan zen. Guztira lau bazkide berri sartu dira: Jabier Ibarra Irazoki, Julen Ibarra Irazoki, Luzio Irazoki Etxeberria eta Jabier Petrirena

Telletxea. Berriz ere 200 bazkide ditu elkarteak eta ea jende gehiago animatzen den elkarteak haunditu ahal izateko.

Dantza ikastaroak

Martxoaren 26an dantza ikastaroari hasiera eman zioten nerabeek, eta astelehenero izanen

dute. Haurrak, berriz, asteazken honetatik, apirilak 4, aitzinera bilduko dira, asteazkenero, 15:00etatik 16:30era. Eta helduak martxoaren 29an eman zioten hasiera, 20:30etik 21:30era.

Mendi irteerak

Asteburu honetan, api-

rilak 7 eta 8, Moncayo-ra joanen dira Ulibeltzak Mendi Taldekoak. 06:00etan egin dute hitzordua plazan.

Eskolako irteera

Martxoaren 26an eskolako haur guztiak irteera egin zuten. Haur Hezkuntzakoak eta Lehen Hezkuntzako 1 eta 2. mailakoek Donostiako Aquarium-a eta Txiki-park-a bisitatu zituzten. Lehen Hezkuntzako 3, 4, 5, eta 6. mailakoak, berriz, Txuri-Urdinera joan ziren, eta itsasontzian ere ibili ziren. Izugarriko eguraldia egin zuten eta hagitza ongi pasatu zutela aipatu zuten.

BTT proba

Martxoaren 4an hasi zen Open Caja Rural BTT 2012 txapelketa Izkue herrian eta aipatzekoa da hiru sunbeldar parte hartzen ari direla, bakoitza bere kategorian: Eneko eta Koldo Herrera Urroz eta Garikoitz Larraburu Bertiz. Animo eta segi horrela!



ARGAZKIA: MAIDER PETRIRENA

XIX. mendeko labadereoaren inguruko informazioa eskura

Herriko labadereoaren kanpoko aldean plaka bat paratu dute eta zera ageri da: XIX. mende erdialdeko izar itxura duen garbitegia, 2011. urtean auzolanean berreskuratua. Denbora luzez, garbitegiak herrietako bizigarri izan ziren batez ere emakumeen artean, garbitzeko garaian elkartzeko aukera ematen zuelako. Aurrean dugun hau herriguneko aitzineko ondarearen eraikinik adierazgarrienetako bat da eta zeuden bi berdinetatik zutik dagoen bakarra. Eraikin honek oinplano karratua du, teilatua lau uretara, egurrez eta teilaz osatua eta paretak, berriz, harrizkoak.

udana salazones

LAC

900-02-0199

Inportaziozko lehen kalitateko bakailu gazitua
Bakailu gezatua eta kongelaturia, erabiltzeko prestat

Kale Nagusia no. 2 - Baraña, 0 - 23. pabiloia - LESAKA - Tfnoa: 948 631 536 - Faxa: 948 631 600

elika

Dietista - Altabera

++ non bazterria

%5 eko
DESKONTUA

GIZARTEA → MALERREKAKO AHOZKO ONDAREA

Sei herritarrek parte hartu dute ahozko ondarea biltzeko lanean

Maite Lakarrek egin duen ikerketa aurkeztu da zineman

Zozaia, Caridad Larregla Garraus, Joxe Antonio Sarratea Telletxea, M^a Isabel Mitxeltoarena Atxa, Ramonita Míndegia Garro (hila da) eta Enrique Taberna Vera.

Nerea TELLETXEA

Urteak eman ditu Maite Lakarrek ahozko ondarea jasotzen, belaunaldiz-belaunaldi eta ahoz-ahoz transmititu den herri jakintza bideoz biltzen. Malerrekan berean 54 lagun elkarrizketatu ditu ikerketa honetarako eta martxoaren 24an lanaren aurkezpena egin zuen Doneztebeko zineman. Ikerketaren nondik norakoak azaltzeaz gain, eta grabazioaren bideoa eskaintzeaz gain, lan honetan parte hartu duten guztiei grabazioaren kopia emateko aprobexatu zen aukera. Behin lana eginda, memoria historiko hori gizartearen esku uztea da asmoa.

Doneztebetik ere bada dira ekimen honetan parte hartu dutenak: Alfredo Zugarramurdi

Eskubaloi kontuak

Erreka Kirol Elkarte-ko kadete mutilak eskubaloi denboraldi bikaina egiten ari dira: lehen-dabiziko, Txapeldunen Faserako sailkatzea lortu zuten. Orain, apirilaren 20tik 22ra Nafarroako lau talde hoberenen artean ligaxka jokatu da ligako txapelduna zein den erabakitzeko, eta lau horien artean egoteko aukera haundiak dituzte Errekako kadeteek, Txomin Míndegia, Jabiertxo Almandoz eta Juan Telletxearen aginduetara ari diren mutilak.

Gogoratu, talde honetako bi jokalarik, Iñigo Oskoz eta Jabier Apeztegia, urtarrilean Murtzian ibili zirela Espainiako Eskubaloi Txapelketan, Nafarroako Selekzioarekin.



ARGAZKIAK: FERNANDO ETXEBERRIA

Martxoaren 24an egin zen Malerreka ahozko ondarearen lanaren aurkezpena zineman.



ARGAZKIA: NOELIA ARIZTIA

Judoak badu etorkizuna

Judoka finak ditugu herrian. Martxoaren 17-18ko asteburuan, Maider Jabalera eta Andrea Vazquez Nafarroako infantil mailako bigarren txapelketan izan ziren Mendillorri, 52 kiloz azpiko kategorian. Maila ona erakutsi zuten, eta azken fasea ahal bezain ongi akitzeko bide onetik doaz. Martxoaren 24an, bertetik, Nafarroako alebin mailako lehenbiziko fasea izan zuten Errekako bertze judokak Mendillorri. Haritz Bereau txapeldun gelditu zen, eta Gogor Atxalandabaso eta Cristina Arambel azpitxapeldun. Horrez gain, Endika Astrainek lehenbiziko aldiz txapelketan parte hartu zuen.

LEGARRA

Egunkariak | aldizkariak | lekuak | opariak | bitarteko fotokopiak | enkladarmazkoak | plasmakazkoak | tax publikoak

ZERBITZU BERRIAK!!

FOTOKOPIAK KOLORETAN A3 eta A4
USB-tik zuzenean inprimatzen dugu

Tfn. 941 03 70 30 - Albilte, 9 - LESAKA

BEINTZAKO OSTATUA

941 43 00 14

ORBELA

ola SAGARDOTEGIA

Bertako sagarrarekin egindako sagardoa

- 250 lagun eserita
- Klimatizazioa
- Sagardotegiko menuak

TXOTX GARAIA IREKIA

102 Meeka auzoa - 20304 IRUN - Tfnoa 943 423 138

ITUREN

OSPAKIZUNAK → AMABIRJIN EGUNEKO MEZA ONDOTIK

Giro polita sortu du Ander, Kenari eta Martinen arteko aizkora apustuak

Kenari eta Martin bikoteak irabazi dio Anderri

Arkaitz MINDEGIA

Iragarri bezala, joan den martxoaren 17an Aurtitzen herritarren arteko desafioa egin zen. Alde batetik, Ander Erasun aizkolaria aritu zen, eta bestetik, berri, Kenari Erasun eta Martin Telletxea. Ander bertze bien kontra aritu zen bera bakarrik. Proba ongi joan zen, baina hondarrean, bi lagun izatearen abantailagatik edo, Kenari eta Martinek irabazi zuten apustua.

Apustuaren aitzakian giro polita sortu zen Aurtitzen. Jende poliki bildu zen desa-

fioa ikustera eta nola ez, ondotik antolatua zen herri afarira ere bai. Afarian jan ziren bildotsak Anderrek ordaindu behar izan zituen, apustua galtzen zuenarentzat horixe bera pentsatua baitzuten.

Bardoak 2012

Lerro hauek argitaratzerako, Bardoak 2012 Nafarroako Taldekako Bertsolari Txapelketako finala jokatua izanen da –martxoaren 31n Leitza egitekoa zen– eta beraz, jakina izanen da nor den talde txapel-duna. Dena den, aipatzekoa da, finalean hiru talderen artean Oronoz eta Iturengo Eraun-tsi taldea han izan zela. Azken lehian, Rimak

Exkaxko eta Bilixkorriko taldeekin aritze-koak ziren Alazne Untxalo, Amaia Elizagoien, Iker Gorosterra-zu.

Ahozko ondarea eta herritarrak

Malerrekako ahozko ondarea jasotzeko egin den lanean, herritar bat baino gehiagorekin egingo solasak bildu dira. Andres Iñigo Ariztegi, Euxtakio Bazterrika Elizalde, Manuel Bazterrika Elizalde eta Mikiela Etxeberria Hermandorenarekin mintzatu da lan honen egile den Maite Lakar.

Aste Santua

Eguberri eta inauterrien ondotik datozen besta egunak Aste Santukoak ditugu eta aurtengoak ere gainera ditugu. Egun horietan meza eta ospakizunak egingen dira, baina gure herriko txoko eta bazterretan bereziki ikusiko direnak turistak izanen dira. Seguruenik, landetxeak,



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Ander Erasun aizkora.

hostalak eta apartamentuak beteta edo betetzear egonen dira,

eta gure aldetik, oportuki hauek ongi pasatzea desio dizuegu.

Ba al zenekien...

Herriko taldea dugun Trikidantz taldearen **Euskaraz Bizi** kantarekin arrunt bideo txukuna eta polita dagoela Youtuben? Txantxangorria deitzen denak egin du eta bilatzailean nahikoa da **Euskaraz Bizi** (Trikidantz) paratzea. Ikusi, ikusi...

APARAN, S.A.

ERRINDOLAILA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzomerak
- Ate aruntak eta sukaide mobleendakoak
- Pintura eta bernitzak
- Bamurako mobleak eta osagariak
- KIT mobleak: esku-erremintak, itabi...



Tel: 948 456 080
Fax: 948 450 334
DONEZTEBE



intzuri

%10eko
DESKONTUA

ZUBIETA

OSPAKIZUNA → ASTE SANTUKO OPORREN AZKEN EGUNETAN

Ipuin kontalariaren saioa eta eskulan tailerra eginen dituzte Gaztegunean

Malerrekako Mankomunitatearen laguntzarekin prestatu dira

Fermin ETXEKOLONEA

Aste Santuko oporetan ere ez dute aspertzeko astirik izanen Gazteguneko neska-mutikoei, ipuin kontalariaren saioa eta eskulan tailerra eginen baitituzte. Malerrekako Mankomunitateak euskarazko kultur jarduerak antolatuzeko egin duen dirulaguntza deialdia aprobetxatuta eginen dira bi ekimen horiek.

Alde batetik, apirilaren 13an, ostirala, ipuin kontalaria izanen da 17:00etatik 18:00etara eta ondotik, merendola eginen dute guraso eta haurrek txokolata eta bizkotxoekin.

Bestetik, berri, biharamunean, apirilak 14, birziklatutako materialarekin eskulanak



ARGAZKIA: IZASKUN ZUBIALDE

Oso momentu politak pasatzeko aukera izaten dute haurrek Gaztegunean.

egiteko aukera izanen dute haurrek, Ines Gereka maixu dutela. 17:00etatik 19:00etara izanen da.

Mus txapelketa hedabideen alde

Xorroxin, Xalao eta TTIPI-TTAPAren aldeko mus txapelketak jokatzen ari dira eskualdeko herrietan, eta Zuberietan, larunbat hone-

tan, apirilak 7, eginen da. Herriko Ostatuaren eta Udalaren laguntzarekin antolatu da eta larunbatean bazkalondan izanen da Herriko Ostatuan. Parte hartzera animatu nahi zaituztegu. Irabazleek Sunbilla apirilaren 14an jokatuko den finalerako txartela lortuko dute.

Auzolana

Herri inguruak txukun-

tzeko auzolanean hasita pentsatzen hasi da Udala. Auzolanaren bidez, besteak beste, herri bazterrak apaindu, elizako itxoxurak moldatu eta erreka eta mendietan dagoen zarkarra garbitu nahi dira.

Termitak herriko estalpean

Bisita desatseginik izan gabe, erne egon

beharko dugu. Izan ere, herriko estalpean termitak daudela ikusi da eta zokaloak jaten ari direla. Horri aurre egiteko, albintea termiten kontrako tratamendua egiten ari da, baina badaezpada ere, ondoko etxeetan arretaz erreparatu beharko zaie.

Kantu zaharren afaria Errandonean

28 lagun elkartu ziren martxoaren 17an Errandonea ostatuan egindako kantu zaharren afarian. Giro polita sortu zen, eta Eratsundik eta Ezkurratik etorri ziren Juan eta Miguel Marirekin umore ederrean ibili zen jendea kantari.

Heriotza

Martxoaren 15ean joan zitzaigun Jose Luis Mendiburu Martin. Lerro hauen bidez, gure doluina Ana andreari eta Joseba, Andrea eta Mikel seme-alabei. Goian bego.

LARRALDEK eta LINDURAREN BORDAK
Baztan Bidasoako sagardotegiak

Dolarea
Txotx denboraldia irekia
Eskualdean egindako sagardoa

LARRALDEA | Tolosa auzoa - LEKAROZ | 948 452121 - 626 494317
LINDURAREN BORDA | Nabaz auzoa - LESANA | 948 637212

ARTEKARI TALDEA
ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

- Langile autonomoak
- Nekazariek eta merdi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-Kontratatutako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta alorpenak
- Eberritasun eta jubilazio espedienteak
- Bidegaitasun planak eta sursurkotasunak

artekari@artekari.com

LEKAZA: Silliro, 77. behe - Tel: 948 637 050 - Fax: 948 637 050
BURLETA: La Yllo, 4 - Tel: 948 133 328 - Fax: 948 133 713

ELGORRIAGA

UDALA → AZPIEGITURA BERRIA

Estalpea egiteko lana esleitu du Udalak

Olazar aroztegia arduratuko da muntatzen den estalpea egiteaz

Mattin LARRALDE

Estalpea egiteko enpresa kontratatu du Udalak. Bere garaian, TTIPI-TTAPAN idatzituen muntatzen den estalpe bat egiteko beharra bazegoela herrian eta Udalak horretan hastea erabaki zuen. Lehiaketa egin zuen, eta baldintzen artean, 10.000 eurotik ez pasatzea eskatu zuen, BEZ barne. Aitzineko egunetan ireki zituen Udalak aurkeztutako eskaintzak eta lanak Olazar aroztegiari esleitu dizkio.

Egituraren neurriak ondokoak izanen dira:

20 metro luze, 10,50 metro zabal eta altura libre a hiru metro.

Malerrekako ahozko ondarea

Berriki Malerrekako Ahozko Ondarearen bilketa lanaren aurkezpena egin da Donezteben, eta aipatzekoa da, hiru herritarren elkarriketak ere bildu dituela Maite Lakarrek lan horretarako. Eulalia Indart Ilarregi, Jose Arrieta Petrikoren eta Juan Mariezkuren dira ikerketa honetako herriko protagonistak.

Berriemaile Xorroxinen

Martxoaren 26az gozotik, lerro hauek idazten dituen Mattin Xorroxinen ere aritzen da herriko berriak ematen. Astero-astero ariko da.



ARGAZKIAK: MATTIN LARRALDE

Herritar bat gehiago

Duela gutti, bataioa izan dugu herrian, Aimar Bertiz Etxeberriarena. Bertze biztanle bat gehiago dugu eta herri ttikientzat berri pozgarriak dira horrelakoak. Zorionak bere gurasoei, Nerea eta Patxiri, eta ongi etorri Aimarri.



ARGAZKIA: MATTIN LARRALDE

Kantu saio gustagarria

Emanaldi ederra eskaini zuen Doneztebeko Mendi abesbatzak martxoaren 23an elizan. Hainbat kantu entzuteko aukera izan zen, eliza-kantu batzuekin hasi eta hainbat folkloretako abestietara pasatu ziren, euskal folkloreri garrantzia emanez.



GIZARTEA → MALERREKAKO AHOZKO ONDAREA

Bittoriano, Petra, Nati eta Triniren erranak bildu dituzte ahozko ondarearen lanean

Euren elkarrizketaren grabazioa eman diote opari

Joseba URROTZ

Malerrekako Ahozko Ondarearen lanean lau urroztarrek hartu dute parte, Maite Lakarrekin elkarrizketa eginez. Bittoriano eta Petra Arzua-ga, Nati Telletxea eta Trini Grajiarena izan ziren Maitei lehengo bizimoduak kontatzen aritu zirenak hainbat orduz. Eta Malerrekan egindako bertze elkarrizketekin osatutako lana martxoaren 24an aurkeztu zuten Donezteben. Ekitaldi polita izan zen, lan horren laburpen tiki bat ikusi ahal izan zen, ez hain aspaldiko kontuak entzuteko aukera, gau-

zak hain azkar aldatzen diren garai hauetan, ia galduak diren hainbat usadio, kontu eta abar gogoratzeko. Berriki arte sutondoan, karrika bazter, ostatueta, ahoz-aho pasatzen ziren kontuak, gaur egun DVDan bedere ikasi be-

har. Hain zuzen, parte hartzaile guztiei esker errak eman eta euren elkarrizketaren grabazioa oparitu zitzaizen.

Argazki zaharren liburua salgai

Lehengo kontuei begira segituz, udaberria-

rekin batera, hainbat hila- babetz ontzen egon eta gero, agertu da Urrozko argazki zaharrekin egindako bildumaren liburua.

Dotore gelditu da, eta espero dugu jendeari gustatzea. 96 orri ditu eta 402 argazkirekin hor-

nitua dago. Liburua 20 eurotan salgai dago DVDarekin batera, eta heritik kanpo dagoen norbaitek ere interesa baldin badu, helbide elektronikoa honetara idatz dezake eta eskatu: urrozkoargazkiak@gmail.com.



ARGAZKIAK: JOSEBA URROTZ

Ezkerretik hasita, Nati, Bittoriano, Petra eta Trini euren grabazioaren DVDa eskuetan dutela.

Udako Oporrak Kostaldean

Lloret de Mar H. Añadú **** ME 10-14/15	21€	La Manga del Mar Menor H. Casanova **** ME 10-14/15	26€
Calella de la Costa H. Bonmat **** ME 10-14/15	38€	Mojacar H. Peña Mónica **** ME 10-14/15	24€
Salou H. Pineda de Mar **** ME 10-14/15	20€	Roquetas de Mar H. Pineda de Mar **** ME 10-14/15	39€
Peníscola H. Añadú **** ME 10-14/15	32€	Almerimar-El Ejido H. Añadú **** ME 10-14/15	34€
Benidorm H. Calles **** ME 10-14/15	25€	Istantilla H. Añadú **** ME 10-14/15	54€

Erreserbatu Orain

%62

artebe Otua.

Maiztuzen 31 baino lehen egindako erreserbetzat.

INFORMAZIOA ETA ERRESERBAK:
 Estegara 22, beheko. 01780 BERRA Navarra
 Tel. 948.001.308
 Email: bera.12000@viajesiberia.com

DONAMARIA

GIZARTEA → IRTEERAK

Sagardotegira bisita egin dute aurten ere herritarrek

Sagardotegi denboraldian urtero egiten da irteera

Izaskun GOÑI TELLETXEA

Aurreko alean azaldu bezala, herritarrak Astigarragako Etxeberria sagardotegian izan dira. Donamariatik autobusean atera eta bertaraino joan ziren. Bazkari ederra egin eta kupelak ongi hustu ondok, autobusean berriro ostatuetara joan eta han ibili ziren. Zerbeza eta kalimotxo guztiak akitu ote ziren?

Giro ederrean pasatu zuten bai sagardo-

tegia eta bai ostatuetan ere. Ohitura hau inoiz ez galtzea espero dugu eta hurrengo urtean jendea gehiago animatzea, primeran pasatzeko aukera ederra izaten da eta!

Mus txapelketa

Dagoeneko, laugarren astea da Herriko Ostatuan mus txapelketa dagoela. Azkenekoa Xaloa, Xorroxin eta TTIPI-TTAPari laguntzeko egitekoa zen, martxoaren 31n, eta espero dugu jende andana elkartu izana.

Ikusten denez, Donamarian afizio handia dago musean jokatzeko, eta gazteek ere aur-



ARGAZKIA: IZASKUN GOÑI

Kuadrilla ederra animatzen da urtero sagardotegira joateko.

kari gogorak direla erakutsi dute.

Aipatu, eskualdeko hiru komunikabideei laguntzeko mus txapelketako irabazleak Sun-

billan apirilaren 14an egingen den finalean ariko direla.

Ahozko ondarea

Duela gutti, Malerreka-

ko ahozko ondarearen lana aurkeztu dute Donetzteben.

Maite Lakarrek hainbat lagun elkarrizketatu ditu, eta tartean izan dira Donamaria-Gaztelukoak ere: Carmen Larraburu Gaztanbide, Lazaro Sagardia Erneta eta Mari Juana Telletxea.

Donamaria Xaloa telebistan

Kleoferen bidez, Donamariako hainbat txoko ikusteko aukera daukagu Xaloa telebistan. Herriko auzoak, jauregia... ageri zaizkigu xehetasun guztiekin.

BORTZIRIAK

GIZARTEA → HONDAKINAK

Ibardingo eta Berako zabortegia berreskuratu dituzte

1.578.625,69 euroko gastua egin da

TTIPI-TTAPA

Bortzirietako Hiri-Hondakinen Mankomunitateak Ibardingo zabortegia itxi eta berreskuratzeko lanak burutu ditu. 1990. urtean ireki zen zabortegia eta 2008ko martxoaren 10a bitarte eraman ziren hondakinak. Tarte horretan, 58.240 Tona hiri

hondakin solido bota direla kalkulatzeko Mankomunitateak eta horri, Bera eta Lesako lantegietatik zuzenean botatzen zena eta Hendaia hiri-hondakin solidoak gehitu behar zaizkio.

Zabortegia ixteko gastua 1.578.625,69 eurokoa izan da eta Ibardingoarekin batera, ondoan zegoen Berako zabortegia ixteko ere aprobetxatu da. Proiektuaren zuzendaria izan den NAMAINSAko (gaur

egun Gestión Ambiental) Susana Aldaz Goñik lanen inguruko xehetasunak azaldu zituen martxoaren 28an Mankomunitateko eta bortz herrietako udal agintariei. Zabortegia izan zen lekuan, orain mendixka bat ageri da, baina oraindik barnean dituen ur zikinak eta lixibiatuak biltzen dira kolektore batera eta Berako ur zikinen hodira sartzen dira zuzenean. «Oraindik egunean 46 metro kubiko biltzen di-



ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

Mankomunitateko eta udal agintariak, Ibardingo zabortegi berreskuratura martxoaren 28an egindako bixitan.

ra, segundoko litro erdi ur zikin, baina denborarekin hori idortzen joanen da», erran zuen Aldazek. Kanpoko aldeetik, berriz, menditik eta

iturrietatik ixurtzen diren ur garbiak biltzeko bertez kuneta batek Sagasti errekarara bideratzen du ura, ur zikinarekin nahastea eragotziz.

HIRIGINTZA → ANAI ASTIZ KONTSEILARIA NARBARTEN

Nasursaren zerbitzua bermatzen saiatu direla erran du kontseilariak Narbarten

Ekainean egoeraren balorazio bat egingen da

Martin BERTIZ

Nafarroko Gobernuaren mende dagoen enpresa publikoa da Nasursa, eta etxeak eraberritzeko dirulaguntzak kudeatzeaz gain, udalek bere zerbitzua kontratatzen dute etxebizitzaren inguruko gaietan aholkularitza eskaintzeko. Eskualde guztirako bi arkitekto eta aparejadore bat daude. Baina joan den urte bukaeran, arkitekto bati ez zioten kontratua luzatu murrizketak direla eta.

Horren aitzinean, zonaldeko udal guztiek eskutitz bat bidali zioten

Anai Astiz Sustapen eta Etxebizitza kontseilariari, arkitekto hau berriz ere kontratatzeko eskatuz. Ez zutenez erantzunik eman, bigarren eskutitz bat bidali zitzaion martxoan, Anai Astizekin bilera eskatuz. Hain zuzen, bilera hori martxoaren 20an egin zen Narbarten.

Bilera horretan kontseilariak adierazi zenez, zerbitzua bermatzen saiatuko dira eta ekainean egoeraren gaineko balorazio bat egingen da, berriz ere bilera batekin egoera aztertzeko.

Bilera

Joan den martxoaren 30ean bilera informatiboa egitekoa zen Musoñenea etxearen inguruan dagoen

proiektua aurkezteko. ZAIN fundazioko Agus-

tin Azkarate eta Ander de la Fuente etortze-

koak ziren proiektuaren berri ematera.



ARGAZKIA: MARTIN BERTIZ

Garbiketak mendietan

Aitzineko urteetan bezala, aurten ere erreketak kontrolatuak egin dira herriko mendietan. Joan den martxoaren 24an herriko 10 boluntario eta bertze hamar suhiltzaile elkartu eta eguna mendian pasatu zuten garbiketak egiten. Goiz partean, Urkide gaineko aldeko lur eremuei su eman zitzairen. Segidan, Bertizko mugan dagoen Otaltzu ingurua garbitu zen. Erran beharra dago, bai boluntarioek eta bai suhiltzaileek ere, eguna ederki nekaturik akitu zutela, baina egindako lanarekin gustura.

LEGASA

GIZARTEA → GERTAERAK

Putreak bertatik bertara

Ardi bati eraso egingez ase dute gosea putreek

TTIPI-TTAPA

Martxoaren 17an 18:30 inguru zirela, gure buruen gainean denei begira eta dena ikusten egoten diren barri-

deen bisita izan genuen. Barride hauek bisita hagitz fina dute eta edozein aukera aprobetxatzen dute beraien gosea asetzeko. Arratsalde horretan herriko partikular baten artaldeko ardi bat azkar xahutu zuten. Irudian ikus daitezke artaldea eta putreen talde ederra elkarren ondoan.



UTZITAKO ARGAZKIA

Putre kuadrilla ederra izan genuen bisitan herrian.

Egur loteak

Apirilaren 2an akitzekoa zen su egur loteen

eskaera egiteko epea. Interesatuiei bi aukera eman zitzaizkien: lotea

bakoitzak bota eta egin edota lotea enpresa batek etxeraino ekartzea.

EZKURRA

GIZARTEA → HERRIKO MAPA

Ezkurrako mapa egiten ari da Xabier Taberna goizuetarra

Historiaurreko aztarna berriak ere aurkitu ditu eta mapan kokatuko ditu

Herritarren laguntza ere eskatu du datuak errepasatzeko

Fernando ETXEBERRIA

Xabier Taberna goizuetarraren lanari esker, Ezkurrak ere bere mapa izanen du, Leitza eta Goizuetako mapen

berdintsua. Herriko toki gehienetan barna oinez ibili da goizuetarra eta orain herritarren laguntza eskatu du, bildutako datuak gainbegiratzeko. Zenbait tokitara berriz joan nahi du Tabernak herritarrekin, berak bildu dituen izeinak eta herritarrek erabiltzen dituztenak bat datozen ala ez ikusteko.

Meritu handia du egiten ari den lanarekin. Gainera, historiaurreko aztarna berriak ere aurkitu ditu eta horiek mapan kokatu nahi ditu, baita desagertzen edo erortzear dauden baserriak eta bordak ere.



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA

Beñatek garbitu duen zubi hau XVII. mendekoa da, adituen arabera.



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA

Obra bukatua

Ia bi hilabeteko lanen ondotik, goiko karrikako bidea zabaltzeko lanak bukatu dira eta itxura polita hartu du, harria erabili baita. Orain edozein ibilgailuk izanen du herriko azken etxeraino joateko aukera.



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA

Berrito festa giroan

Aurten, inauterien ordezkantutafaria ospatu zen martxoan, Joxeanjel akordeolari nekaezinaren laguntzarekin. Arrakasta izugarria izan zuen eta erantzuna ikusita, zenbait lagunek berriz elkartzea erabaki zuten martxoaren 23an, arkumek dastatzeko. Hogei bat lagun elkartu ziren.

Inguruko ekitaldiak, informazioa eta bitxikeriak jakin nahi badituzu

Egin zaitez **ttipi-ttapa** ren HARRPIDEDUN

- Hego Euskal Herria 38€
- Europa 56€
- Baztan, Urdazubi eta Malerrika 32€
- Amerika eta Australia 124€
- Ipar Euskal Herria 56€
- Leitza 16€

(0034) 948 63 54 58
www.ttipi.net

GIZARTEA → GARAI BATEKO KONTUAK

Presak 201 urte zituen

Errota berria 1805ean egin zuten, eta presa berria 1808an

Markel LIZASOAIN

1805ean egin zuten errota berria, zaharra zegoen lekutik goitixeago. Eta handik hiru urtera, 1808an, presa berria. Horrek esan nahi du presa bota zutelarik, 2009an, 201 urte zituela, hau da, berrehun eta bat urte zituela. Hala heldu da paper zahar horietan.

Errota berria hiru iturendar maisuk eta sei langilek egin zuten; horretarako, orduko Jurdaneko nagusiak, Juan Martin Etxekonaneak, bere gain hartu zituen errota egitekoan gerta zitezkeen arriskuak, eta etxea paratu zuen fian-

tzan. 850 peso kostaria da errota, eta 19.858 erreal, berriz, presa; ez jakin zenbat diru zen hori orduko jendearentzat; gutxi ez.

Presa egiteko, Orreagako arkitekto bat behar izandu zuten, eta hiru ezkurkar maisuri enkargatu zieten lana. Napoleonen garaiak ziren, garai nahasiak. Frantziak Espainia hartu berri zuen, indarra eta diplomazia ibilita, eta Euskal Herrian aukera tiki bat izandu omen zen, Frantziako Errepublikaren barrenean, zazpi probintziek bat egiteko. 1808ko Saldiasko presaren paper horietan eskribitua ageri da Espainiaren eta Frantziaren arteko iraultzarik ez bada aurrera segituko dutela presa egiteko lanetan.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Horrela daude presa zegoen tokia eta errota.

Herriko lagun batek eman dizkigu errotaren

gaineko argibideak eta hura egin zuteneko agi-

rien kopiak; eskerrik aunditz hari.

GRUPO TANATORIO TALDEA
IRACHE
MALDAERREKA S.L.

24 ORDUKO TELEFONOA
948581959 | 948637404

LEKUNBIERRI | BERRA (SAN JOSE) | LESAMA | ELIZONDOKO (BAZTAN) | LETTZA | BETEJU
DORREZTEBE (SAN PEDRO) | ELIZONDOKO (BAZTANDARRA)

TRASLADOAK IRUÑA, DONOSTIA ETA IRLINGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA
LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK, ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

GIZARTEA

ARKUPEAK → APIRILEKO HITZORDUAK

Soinketa Eguna ospatuko du Arkupeak-ek apirilaren 12an

Bezperan Ordiziako merkatura joanen dira

TTIPI-TTAPA

Irteerak, hitzaldiak, ikastaroak, txapelketak... Gisa guztietako ekimenak antolatzen dituzte Arkupeak jubilatuen elkartean. Apirilaren 11n, erraterako, Ordiziako merkatura eginen dute bisita, eta biharamunean, apirilak 12, Soinketa Eguna eginen dute Berako kiroldegian. 12:00etan hasiko da soinketa erakusketa eta 14:15 aldera bazkaria izanen dute Zubiondo jatetxean. Arratsaldean dantzaldia izanen dute. Ez dira hauek apirilako ekimen bakarrak izanen. Izan ere, apirilaren 17tik 25era Andaluzia aldera joanen dira.

Ez da guttiagorako izan martxoak. Xabierko

Gaztelura eta Olitera irteerak, hitzaldiak eta bertzelako saioak ere egin dituztelako. Mus txapelketa da horren adibide.

Eguna horretarako hartuta, goiz-arratsaldez musean aritu ziren Arkupeak-eko bazkideak martxo hondarrean. Otsailean herrizherri jokaturako txapelketetatik sailkatu zirenak aritu ziren eta txapela Leitzara joan zen, Angel Arrizurieta eta Josefina Matxainek irabazi zuten. Txapela eta lñurrietaren sei ardo eman zituzten. Bigarren sailkatu zirenak Irurita-ko Joxe Arraztoa eta Norberto Irureta izan ziren (hiru ardo); hirugarren postua Urrozko Juanito Iribarren eta Marcos Juanenarentzat izan zen eta laugarrena Angel del Moral eta Pedro Urriza elizondarrentzat. Bi bikote hauen kasuan, bakoitzak bi botilako lotea jaso zuen.



ARGAZKIAK: FERNANDO ETXEBERRIA

Mus txapelketako irabazleak, bigarrenak, hirugarrenak eta laugarrenak, goitik behera.

ttipi-ttapa
www.ttipi.net

aldizkaria etxera bidaltzea nahi baduzu, deitu telefono honetara:
948 63 54 58

Suteela-Zaldain
instalazioak

**IGOGAILUEN INSTALAZIOA
AROTEGI METALIKOA
TOLDOAK**

Santiago, 71
31700 ELIZONDO
T. 948 580 166
F. 948 452 557
M. 619 424 999 - 649 699 820

URUMEA ETA BIDASOA IBAIAK → BIDUR PROIEKTUAREN BUKAERAKO MINTEGIA BERAN

Zundaketen bidez edangarria den lur azpiko ura topatu dute

Bidasoa eta Urumeako arroak batera kudeatu nahi dira

TTIPI-TTAPA

Bidasoa eta Urumea ibaietako arroak modu bateratuan kudeatzeko mugaz gaindiko Bidur proiektuaren bukaerako mintegia egin zen martxoaren 21ean Beran.

Proiektuaren bidez, Bidasoa eta Urumea ibaietako arroen kudeaketaren alderdiak metodologia bera erabiliz aztertu dira, bi ibaiak antzeko ezaugarri ekologiko eta hidrojologikoak baitituzte. Bidur proiektuak Pirinioen bi aldeetan uraren kudeaketa integralaz arduratzen diren entitate publikoen partehar-



ARGAZKIA: ALICIA DEL CASTILLO

Jende aunitz bildu zen martxoaren 21ean Berako Kultur Etxean.

tzea bultzatu du, ezagutzak trukatzuta, berrikuntza-neurriak zabaldua eta bi ibai-arroetan inplikaturako sektoreen artean lankidetzaz bultzatuta.

Proiektuaren aurrekontua 2.344.077 eurokoa izan da. Kopuru horren %65 Europar Batasuneko Eskualde Garapenerako Europako Fun-

tsak diruz lagundu du, eta gainerakoa proiektua garatzeaz arduratu diren hiru erakundeak: Nafarroako Ingurumen Kudeaketa, Haztegiak eta Birpopulatuak sozieta-te publikoak –Nafarroako Gobernuako Landa Garapen eta Ingurumen Departamentukoak–; Gipuzkoako Aldundiko IKT

Nekazal Ikerketa & Teknologia eta Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Orokorren Ingurumen Zerbitzuak.

Bidur proiektuarekin, Bidasoa eta Urumea arroen uraren eskuragarritasuna aztertu da, bai lur gainekoa, baita lur azpikoa ere. Bertze hainbat azterketa ere egin dira,

erreken ekosistema egoia mantentzeko uraren kudeaketa jasangarria duen modeloa bilatuz.

Baztan-Bidasoaldeko zenbait herritan ur-hornidura arazoak izaten dira, baina Bidur proiektuak emaitza onak lortu ditu. 275 ur guneren inventarioa egin da, horietatik 243 lur azpi-koak. Gaur egun 218 gune erabiltzen dira ur hornidurarako eta horietatik 184 iturriak dira. 12 zundaketa egin dira (sei Beran eta bana Lesaka, Donamaria, Irurita, Elizondo, Urdazubi eta Zuggarramurdi) eta giza-kiak edateko moduko ura topatu dute Lesaka, Donamaria eta Iruritan. Lesakakoa aipagarria da, lur azpian 50 metrotara, segundoko 50 eta 200 litro arteko emaria duen ur gunea topatu baitute.

Zure negozioaren berri mundu guztiak izan dezan

Bezero berriak = Berehalako emaitzak



PACK
egin em banatu

- Diseinu profesionala
- Esku-otri personalizatua
- Koloretan inprimatua
- Banaketa masiboa zuki nahi duzun berrietan

854€*

2 ALDITAN INTERESIK GABE

427 € x 2 hilabete

*2012/03/31 bitarte balio du

*BEZa sartu gabe

Eskuzko DIRAIN

948 635 458
publi@ttipi.net

AUKERA PAREGABEA

PACK PREMIUM | EGIN em BANATU

Diseinatu, inprimatu eta 10.000 txetxerara banatuak
Adibidez BAZTAN BERTIZARANA-MALENREKA-BOITZIRIAK

PACK PLUS | EGIN em BANATU

Diseinatu, inprimatu eta 3.400 txetxerara banatuak
Adibidez BAZTAN

(194,50 € x 2 alditan) 389 €

PACK BERRA | EGIN em BANATU

Diseinatu, inprimatu eta 1.000 txetxerara banatuak
Adibidez BERA

(99,50 € x 2 alditan) 199 €

ARANO

KULTURA → FESTA BATZORDEAREN DEIALDIA

Santioak hobetzeko lanean hasia da festetako batzordea

Hurrengo bilera herri guztiari irekia izanen da

Ainhoa ANSA

Gauza jakina da Arano festak, giro onarekin tokatuz gero, herrikoiak eta ederki gozatzekoak izaten direla. Horko herri kirolak, pelota partidak eta bertso saioak plaza polita bilizen dute urtero. Ez da horrela izaten, ordea, eguraldiak laguntzen ez duenean. Gabeziak ditu Aranok arazo horri aurre egiteko eta konponbidea, berriz, ez hain erraza gaurko egoera ezagututa.

Aurten, festen batzordeak gaiari aurre egin nahi dio eta horretarako lanean hasia da



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Eguraldi ona egiten duenean, jendez betetzen da plaza baina eguraldiak laguntzen ez badu, gabezia nabaria da herrian.

dagoeneko. Festak nola tokatzen diren ikusita (Santio eguna asteazkena da), programazioa ongi pentsatu behar da eta dagoeneko ideia on batzuk darabilzkigu buruan. Baina festak ho-

betzeko, antolaketan egin behar dira aurreneko saiakerak eta hurrengo bilera herri guztiari zabaltzea da ideia. Eguna eta ordua jarritakoan jakinaraziko dizuegu.

Letariak aspaldiko partez

Duela pare bat urte ere berri hau idatzi genuen TTUPI-TTAPAN, eta orduan ere eguraldia izan genuen etsai. Sekulako zaparradak bo-

ta zituen eta bertan behera gelditu zen mendi buelta. Aurten berriro hartu nahi dugu ideia eta horretarako, Aste Santua pasata, apirilaren 21ean, goizean, 08:30ean geldituko gara herriko plazatik ateratzeko.

Lehenengo kalbarioa Juan Donostiakoa izanen da. Hortik Arrinabarretako kalbariora, Beltsoko itxolako kalbariora gero, Gaartzako kalbariora eta bukatzeko, Ipiñar-sasiko kalbariora iritsiko gara. Euntzingo harria ere bisita daiteke, batzuk ezagutzen ez badute ere, eta gero, herrira buelta.

Garai batean egiten zen bezala, gosaria ere egingo dugu tartean. Gosari hau Sooluxen eginen da. Animatu etortzera!

MALERREKA

GIZARTEA → AINTZINGURUTZE-AMEZTIA INGURUAN

Bi monumentu megalitiko berri eta bertzea zalantzagarria aurkitu dituzte Malerrekan

TTUPI-TTAPA

Doneztebe, Elgorriaga, Ituren, Zubieta eta Oiz aldean historiaurreko bi monumentu berri eta bertze bat zalantzagarria aurkitu ditu Aranzadi Zientzia Elkarteko eta Hilharriak taldeko kideak den Iñigo Txintxurretak. Oraindik aurkitu gabeko monumentuak ba-

zeudela pentsatzen zutelako jo zuen Aintzingurutze-Amezitia ingurura, «orain arte monumentu bakarra ezagutzen zelako aipatuzonaldean, hain zuzen, Francisco Ondarrak 1980an aurkitu zuen Ameztia trikuharria», adierazi du Txintxurretak. Aurkitu diren megalit-

toak Ameztia trikuharriaren ezaugarri antzekoak dituzte, Txintxurretaren arabera: «kasu guztietan tumulu haundia daukate, balizko ganbara desagertu den zologunea agertuz».

Ikerkuntza berriak hiru tumulu dira. Horieta-ko bat Arranburu tumulu da, 18 metroko dia-

metroa eta 1,50 metroko altuera duena. Zologunearen barrenean Doneztebe, Elgorriaga eta Iturenen arteko mugaria dago.

Arrataburu tumulu da bertzea, Zubietan aurkitua, 10 metroko diametroa eta metro bateko altuera duena. «Erdiko zologune leuna

ageri dela» ere jakinarazi du Aranzadiak.

Arruki tumulu Oizen ikusi du Txintxurretak eta 14 metroko diametroa eta metro bateko altuera du. Larre baten barrenean omen dago, belar eta lurrez estalia.

Guztiak aurtengo martxoan egindako aurkikuntzak dira.

GIZARTEA → BOLUNTARIOEN LANA

Hamar suhiltzaile boluntariok egin dute anbulantzia gidatzeko ikastaroa

Orain guardiak eginen dituzte Iruñean

TTIPI-TTAPA

Estimatzeko lana da suhiltzaile boluntarioek egiten dutena eta beraien beharra badela ere agerikoa da, ateraldi saila egitea tokatzen baitzaie. Garai honetan, suteetan egin behar izaten dituzte esku hartze asko, baina aurtengo denboraldia «nahiko txukun» omen doa. Halaxe esan diote TTIPI-TTAPAri. Ihes egindako bi sute baino ez dira izan orain arte.

Anbulantziari ere tokatzen zaizkio ateraldi franko egitea, baina suhiltzaile boluntarioek behar ez duten titulua behar da horretarako, ATA delakoa, edo anbulantzia gidatzeko baimena. Hori lortzeko helburuarekin hasi ziren joan den irailean hamar lagun ikastaroa egiten, bi leitzar eta zortzi goizuetar. Geroztik, abenduan izan ezik, larunbatero horretan ibili dira eta duela gutxi bukatu dituzte alde teoriko eta praktikoa. Orain, berriz, guardiak egin behar dituzte Iruñean.

Titulu hau duen jende berria ongi etorriko da, orain arte gutxi batzuk baino ez baitziren anbulantzia gidatzen ahal zutenak. Aipatu, iaz 30 irteera egin zituela herriko anbulantziak Goizuetan, Aranau eta zenbaitetan Leitzan ere bai.

Apirila Umore Ona Elkarteak

Hainbat ekintza antolatatu ditu Umore Ona Elkarteak hilabete honetarako. Alde batetik, apirilaren 13an, sagardo probaketa eginen dute Etxeberria sagardotegian. 21:30ean izanen da eta izena emateko epea apirilaren 8an bukatuko da.

Apirilaren 21ean, txakoli probaketa eginen dute Ameztoti txakolindegian. Autobusa plazatik abiatuko da 11:00etan eta interesatuek apirilaren 15a baino lehen apuntatu beharko dute.

Apirilaren 27an, berriz ere sagardo probaketa eginen da Olaizola sagardotegian. 21:30ean izanen da eta izen-ematea hilaren 22rako egin beharko da.

Joan nahi duenak Zubi-Ondo ostatuan, Amaia kafetegian edo Umore Ona elkarteak izanen du izena emateko aukera.

Zubimuxuren kudeaketa

Iruñe Zabala herritarra izanen da Zubimuxu aterpearen kudeaketaz arduratuko dena. Udalak egindako deialdian eskaintza bakarra aurkeztu zen, eta Iruñerena baldintzen barne sartu zen. Gainera, urteko eskatutako diru kopurua (4.800 euro gehi BEZ) hobetu zuen. Oraingo bost urterako esleitu zaio kudeaketa, luzatzeko aukerarekin, baina gehienez ere 20 urtera arte.



ARGAZKIA: ANGEL SALABERRIA

Irailaz geroztik, abenduan izan ezik, larunbatero anbulantzia gidatzeko ikastaroan aritu dira hamar suhiltzaile boluntario.



ARGAZKIA: ANDRES NARBARTE XALTO ESKOLA

Antzerkiak eskolan asteazkenean

Ez daude geldirik egoteko eskolako neska-mutikoak. Horren adibide dugu joan den martxoaren 18an egindako irteera. Martxoaren 18an Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako 1, 2, 3 eta 4. mailako ikasleak Iruñean izan ziren. Lehenik Aranzadiko San Pedro museoa bisitatu zuten eta gero Takoneran bazkaldu eta egoteko aukera izan zuten. Ordukoa da argazkia. Asteazken honetan, berriz, apirilak 4, urteroko hitzorduari hutsik egin gabe, eskolako neska-mutikoek antzezlanak eskainiko dituzte jendaurrean. 11:00etatik aurrera hasiko dira antzerki emaldiak eskolan. Bestalde, joan den astean Baztan-Bidasoaldean emititzen den Xaloea telebistaren bisita jasotzeko zuten. Ikasle eta irakasleekin hitz egiteaz gain, herritarrekin ere biltzekoak ziren Xaloea telebistakoak.



ARGAZKIA: ALAITZ ESKUDERO

Futboleko giro ederrean

Lagunarte giroan, oso momentu atsegina pasatu zuten martxoaren 18an Umore Ona Futbol Taldeko eta Gazte Txokoko futbol-jokalariek. Elkarrekin aritu ziren futboleko, gaztetxoak eta helduagoak direnak nahasita bi talde osatuta.

LEITZA

KIROLA → AURRERA KIROL ELKARTEAK ANTOLATUTA

Apirilaren 21ean egingen da Leitzako XXXIV. herri krosa

Aurretik izena eman nahi duenak Internetez egin dezake

JM BARRIOLA

Aurrera Kirol Elkarteak antolatutako herri lasterketa apirilaren 21ean egingen da. Aurtengoa XXXIV. aldia izanen da. Irteera herrigunetik egingen da 16:15ean eta helmuga plazan izanen da.

Hainbat kategoriatan banatuta egingen da ibilbidea. Benjaminek 800 metroko ibilbidea egingen dute; alebinek eta infantilek 2.500 metrokoa; kadete emakumezkoek 2.500 metro egingen dituzte eta gizonezkoek 5.000 metro. Emakumezko juniorrek ere 5.000 metro egin beharko dituzte eta gizonezkoek 7.500 metro. Helduetan, azkenik, emakumezkoek 5.000 metro eta gizonezkoek 10.000 metro egin beharko dituzte.

Abiatzeko ordua ere kategoriaren arabera-koa izanen da: benjaminek 16:15ean aterako dira, alebinek eta infantilek 16:30ean, kadete eta junior mailakoak 17:00etan eta helduak 17:30ean.

Krosaren ondoren, 21:30ean, herri afaria izanen da Aurreran nahi duten guztien artean.

IZEN-EMATEA

Bi modu dituzte lasterkariak izena emateko. Aurretik egin nahi izanez gero, www.kirol-probak.com webgunean egin daiteke, eta bestela, egunean bertan. Web orriaren bitartez, Aurrerako bazkideek 9 euro ordaindu beharko dute eta gainerakoek txiparen arabera, 9 edo 10 euro. Proba egunean, 15 euro kobratuko dira eta Aurrerako bazkideei 10 euro.

Goi tentsioko linea

Goi tentsioko linearen aurkako plataformak ostegun honetan, apirilak 5, mendi ibilaldia



ARGAZKIAK: IGOR ASTIBIA

Hurrengo Atekarock 2014an

Martxoaren 24an Atekarock jaialdia ospatu zen. Oso giro ederrean joan zaigu aurtengoa ere, nahiz eta aurreikusitako baino jende gutxiago etorri. Herriko jendea erruz lagundu zuen eta guztira 120 persona aritu dira laguntzen guztia ongi atera zedin. Antolakuntza bikaina izan zen. Antolatzailak laguntzen aritu diren guztiei eskerrak eman nahi dizkie. Hurrengo urtean ez da izanen Atekarock jaialdirik, hemendik aurrera bi urtetik izatea aurreikusitakoa baitzen.

egiteko deialdia zabaldu du. Plazatik 11:30ean atera eta Aresotik pa-

saz Gorritira joanen dira, eta han bazkaria egingo dute. Ondoren, li-

nea etorriko litzatekeen parajeetatik segituko dute itzuliak.



ARGAZKIA: JM BARRIOLA

2012ko Aberri Eguna

Igande honetan, apirilak 8, Aberri Eguna ospatuko da Iruñean Independentistak Sareak deituta. Data esanguratsua eta garrantzitsua da, eta Leitzako Independentistak Sareak herritar guztiei dei egin diete bertara joan eta antolatu diren ekitaldi guztietan parte hartzeko. 500 urte joan dira Nafarroa konkistatu zutenetik, eta aurtengoa aukera eta une aproposa da berriz ere gure herriarentzat hain beharrezkoa eta komenigarria den independentzia aldarrikatzeko. Ondoko argazkian, Independentistak Sarekoen mural egin berria ageri da.

GIZARTEA → INGURUMENA

Herrilurren inguruko neurketa berriak desadostasunak sortu ditu

Herriarentzat lur eremu gutxiago kontatu dute eta hori erreklamatu egin du Udalak

Juana Mari SAIZAR

Herriko lur komunalak abeltzainek erabiltzen dituzte beren azienden probetxurako, eta orain Europatik lur horien neurketa egiteko agindua etorri da. Hau egin ondoren, neurketen ondorioa zera izan da, herriko lur eremua txikiagoa izan dela. Horrek esan nahi du herriarentzat lur eremu gutxiago kontatu dutela eta falta dena Nafarroako Gobernuak berretzat geratu duela. De-

sadostasun argia agertu du Udalak eta erreklamatu egin dute.

Dirulaguntza

Udaletxearen gaineko lehen solairua aben-

duan inauguratu zen Euskararen Egunarekin. Eta orain gela hori be-

rritzeko eskatu zen subentzioa iritsi da eta %100eko dirulaguntza izan da.



ARGAZKIA: JUANA MARI SAIZAR

Emagina lanean

Emagina edo matrona hasi da kontsulta pasatzen. Osasun kontsulta oso polita dagoela esan du eta pozik etorri da gure artera. Gerturatutako emakumeak, berriz, esker honez agertu dira eskualdean zerbitzu hau jartzea posible egin dutenekin, denbora, gastua nahiz aparkamentua erraztu dizkietelako.

Igeriketa ikastaroa

Guraso Elkarteak igeriketa ikastaroak hasi ditu Lekunberriko igerilekuan. Astelehen eta ostiraletan joaten dira haurrak eta oso ongi pasatzen dute. Udarako martxa hartua izango dute ziur igerilekuan nahiz hondartzan jolasteko!

Bestalde, eskualdeko haurren topaketa aurtengoan Areson egitea tokatzen da. Berdintasun teknikaria ere bertaratu da Guraso Elkartearekin hitz egitera denen artean lan egiteko eta hasi dira martxa hartzen antolatzen.

195 Urteak
Casa Cambra
lantzzeria-etxea

UDABERRI-UDAKO KOLEKZIO BERRIA

edredoi fundak • albornozak • edredoi nardikoak • ohe estalkiak • maindireak • mantelak • kuxinak • toailak
Tafalla, 13 • IRUNEA • 948 230 634

IES LEKAROS ELIZONDO BHI

Bigarren Hezkuntza Institutua



Lekaroz

Uhartea auzoa 2/g
31795 Lekaroz (Baztan)

Tel. 948 581 803
Fax. 948 581 836

ies.lekaroz@educacion.navarra.es
<http://centros.educacion.navarra.es/ieslekar>

Elizondo

Diputazio ibarbidea 2/g
31700 Elizondo (Baztan)

Tel. 948 581 805
Fax. 948 581 840

ies.elizondo@educacion.navarra.es
<http://centros.educacion.navarra.es/ieselizo>

IZENA EMATEA

DBH eta Batxillergoa: apirilaren 16tik 27ra

Erdi eta Goi Mailako Lanbide Heziketa: apirilaren 16tik 27ra

Goi Mailako Zikloetarako Prestakuntza ikastaroa: apirilaren 16tik 27ra

Hasierako Lanbide Kualifikaziorako programak: ekainean

Oharra: Informazio gehiago nahi izanez gero, jar zaitez gurekin kontaktuan

**ESKUALDEKO ESKAINTZA
PUBLIKOA**


Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra

BAZTAN

OSPAKIZUNAK → UDALAK ANTOLATUTA

Udaberriko feria apirilaren 13an egingen da

Goiz eta arratsaldean ekitaldiak izanen dira

TIPI-TTAPA

Aziendak, artisau lanak eta etxeko produktuak etxetik edo baseretik karrikara ateratzeko, apirilean egingen den hitzordu nagusia gainean da. Apirilaren 13an, ortzirala, egingen da Udaberriko Feria. Udalak, Bertizko Partzuergo Turistikoaren, Elizondoko Herriaren eta Cederna-Garalur elkartearen laguntzarekin antolatu du eguna.

- 10:00etan **azienda feria** Merkatu Plazan. **Ahari lehiaketa** ere egingen da.
- 10:00etatik 13:30era eta 17:00etatik 19:00etara **artisautza eta bertako produktuen azoka** Foru Plazan.
- 11:00etan **txistulariak**.
- 12:00etan **Baztango dantzarien saioa**.
- 12:30ean **Baztan-Zopak** dastatzeko aukera.
- 13:30ean **sari bana-keta** Merkatu Plazan.
- 17:00etatik 20:00etara udaberriko **birziklatze tailerra** egingen du te haurrendako.

Agoteen inguruko liburuaren aurkezpena

Kepa Arburua Olazolak Agoteen inguruko liburua idatzi du, *Agote secreto revelado*, eta li-

buru hori apirilaren 13an aurkeztuko du Arizkunenea Kultur Etxean, 19:30ean. Berak dioenez, «XIII. mendean Inkisiziotik ihesi etorritako kataroak ziren agoteak».

Berroetako Aste Kulturala

Berroetako Gure Ametsa Elkarteak aste kulturala antolatu du apirilaren 20tik 22ra. Xehetasunak hurrengo alean emanen ditugu.

Partehartze planaren Baztangoizako bilera

Udal plan orokorra osatzeko egingen ari den partehartze planaren barne, Baztangoizako bilera data aldatu egin dute. Baztangoiza kuarteleko bilera, apirilaren 12an izanen da, Amaiurren, 19:00etan.



ARGAZKIA: PELLO SAN MILLAN

Kantari gaztetxoak Urruñan

Elizondoko abesbatza ttikia Urruñan ibili zen kantatzen joan den martxoaren 18an. Baztango neska-mutikoen abesbatzak Urruñako Tximi-Txama talde antolatzailearekin eta Donibane Lohizuneko ikastolako koroarekin batera, emaldi polita eman zuen. San Bixinto Eliza bete egin zen.



ARGAZKIA: MAITE OTEIZA

Energia berriztagarriak hizpide Arizkunenean

Martxoaren 21ean energia berriztagarrien eta *Energia gara* energia kooperatibaren inguruko solasaldia egin zen Arizkunenean, udaletxeko ingurugiro batzordeak antolatuta. Mintzaldia Alejandro Arizkun Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakasleak eta Miren Meoki Hirusta ingurumen hezkuntza enpresako kideak eskani zuten. 30 bat lagun hurbildu ziren.



ARGAZKIA: PELLO SAN MILLAN

Baztan, Bera eta Lesakako ikastolakoak Elizondon elkartu dira

Baztan ikastolako, Berako Labiaga ikastolako eta Lesakako Tantirumairu ikastolako gurasoak, irakasleak eta haurrak bildu ziren Elizondon martxoaren 25ean. Guztira gure inguruko ikastolako 127 haur eta guraso bildu ziren eta eguraldi bikainak lagunduta, egun ederra pasatu zuten eskualdeko ikastolen elkarte egun honetan. Goizez Beartzun barna ibili ziren, Larremets, Basabar... eta inguruko megalitoak ikusten eta eguerdian Ikastolan bazkaldu zuten: banabarrak, oilaskoa saltsan, gazta, gaztanbera, frutak... eta doike! dena giro ederrean. Inguruko Ikastolen elkarte egun hau pixkanaka pixkanaka finkatzen ari da eta joan den urten Bera aldean bildu ondoren, hurrengoan Lesaka inguruan ibiliko dira.

ERREPIDEAK → ALMANDOZ ETA BELATEKO TUNELAK

Matxuratutako kamioiak gelditzeko guneak egingen dira Almandoz eta Belateko tuneletan

Aste Santu ondorako eginak izanen direla adierazi du Nafarroako Gobernuak

izateko edo laguntza eskatzeko. Arazo mekani-koak dituzten ibilgai-luek debekatua izanen dute tuneletarako sarbidea eta trafiko agintariek seinalizazioa errespetatzen ez dutenei isunak jartzeko ahalmena izanen dute.

TTIPI-TTAPA

N-121A errepidean Almandoz eta Belateko tunelen segurtasuna hobetzeko asmoz, tune-len aho inguruetan matxuratutako kamioien-dako hiru geldigune egokituko dira Aste Santu ondotik, eta horrez gain, seinalizazioa hobetu eta zainketarako hiru bideo kamera berri paratuko dira.

Nafarroako Gobernuko Sustapen eta Etxebizitza Departamentuak egingen ditulanak eta horretarako 268.020 euroko inbertsioa egingen da. Hilabete eta erdi iraunen dute lanek, baina ez dute trafikoa eraginik izanen. Mariezkurrena erainkuntza enpresak egingen ditu aparkalekuak, Señalizaciones Lacroix enpresak seinalizazioak eta SICE enpresak jarriko ditu bideo kamerak.

Neurri hauekin, gidariek bere ibilgailuan arazoren bat dutela dakitenean, gelditzeko leku bat izatea nahi da, arazoa bertan moldatu ahal

Belateko tunelaren alde banatan eta Almandozko tunelean Iruñerako sarbidean egingen dira geldiguneak. Almandozko tuneleko Iruñerako sarbidean, berriaz, Mendiola auzorako sarbideko zabalgunea aprobeztatuko da.

Xaboi ikastaroa Amaiurren

Amaiurko Otsondo barride elkarteak xaboi ikastaroa antolatu du apirilera. Alde bate-tik, apirilaren 13an 16:00etatik 19:00etara elaborazioa egingen da eta hilaren 20an xaboi banaketa.

Ikastaroaren prezioa 30 eurokoa da, materiala barne. Eta izena emateko 659 099309 telefonora deitu behar da. Ikastaroa egiteko hamar lagunendako muga paratu da, baina jende aunitz apuntatuz gero, bigarren tailerra egingen litzateke, seguru-erik hurrengo bi ortziraletan.

Arropa zaharra ekar-tzea gomendatu dute.



ARGAZKIA: WWW.NAVARRA.ES

Gisa honetako seinalizazioa paratuko da Belate eta Almandozko tunel sarreretan.



ARGAZKIAK: UXUE BALLARENA

Eskuararen alde besta giroan Iruritan

Eguraldia lagun, giro polita sortu zen Iruritan Eskuaraz egunaren harira. Herriko dantzarien saio ederraren ondotik, bertsolarien txanda etorri zen. Anje Duhalde-ren kontzertua ere gustura hartu zuen jendeak eta gaueko kontzertuak ere bai.

MENDI
ostatua
Santiago 25
948 500 312
ELIZONDO

MENDIA
ostatua
Santiago 25
948 500 312
AMAIUR

TRANS TXAKAIN
TRANSPORTAZIONEN ENPRESA
ALBUZARREN
ROR

ERAIKUNTZA-HONDAKINEN KUDEATZAILEA
(Eraikuntza-hondakinak dokumentazioa, kutxaketa eta bilketak)
NAFARROAKO GOBERNUAK BAIMENDUA

Otsango Int. 1 - LESAKA
T. 948 638 052 - T. 699 930 188 - info@trans-txakain.com

ZUGARRAMURDI

GIZARTEA → SUTEAK

Bortz hektarea erre ditu nahita biztutako sute batek

Duela hamar urte toki berean izan zen sutea

Koro eta Margari

Negu azkenean gertatzen diren komediekin hasi gara berriz ere: mendiko suteak. Zugarramurdin bortz hektarea erre ziren gan den martxoaren 17an. Eguerdian hasi zen sua, eta hasi bezain laister konturatu ziren nahiez piztuta zela, hiru tokitan su emana zelako, eta azkeneko fokoa oraindik piztu berria zelako... bainan piromanoa ez zu-



ARGAZKIA: MARGARI ETA KORO

Herritarrak eta ponpierrak fite mugitu ziren eta horri esker ez zen 2002an adina eremu erre.

ten ikusi ahal izan.

2002an sekulako sutea izan zen toki berberetan izan da aurtengoa,

bainan herriko jendea eta Senpere eta Oronozko ponpierrak fite mugitu zirelako, ez da orduan

bezainbat eremu erre.

Ordutegi aldaketak
Ordutegi batzuk aldatu

direnaren berri eman behar dugu: hasteko, larunbateko mezaren tenorea 20:15era pastu da (apantziaz apezak bertze toki batean ere meza eman behar duelako).

Bertze aldaketa museo eta lezearena da. Aste Sainduko bakantza egunak direla eta, apirilaren 2tik 15era egunero irekita egonen dira. Apirilaren 5etik 9ra, museoa 11:00etatik 19:30era, eta lezea oren erdi bat lehenago edekiko da, eta oren erdi bat beranduago itxi. Gainetako egunetan museoa 11:00etatik 19:00etara, eta lezea oren erdi bat beranduago itxiko da.

URDAZUBI

UDALA → AURTENGO DIRU SARRERAK ETA IRTEERAK

1,9 milioi euroko aurrekontua onartu du Udalak 2012rako

Haur parke berrirako 30.000 euro aurreikusi dira

TTIPI-TTAPA

Behin betiko onarpena jaso du 2012ko aurrekontuak. 1.897.315 eurokoa izanen da, ia zkoa baino altuagoa. Joan den urtean Udalaren aurrekontua 1.560.630 eurokoa izan baitzen.

Udalaren hasierako onospena hartu ondoren, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen aurrekontua urtarrean eta jendaurrean egondu zenean zerbait alegazio ere aurkeztu ziren. Joan den martxoaren 22an berriz argitaratu zen Aldizkari Ofizialean, baina kasu honetan, behin betiko onospenen berri emateko.

Aurtengo inbertsioen atalean, hauek

dira aipagarrienak. N121B errepidetik herriraino doan NA 4402 zatia konpondu eta gero -Herri Lan eta Garraio Departamentuak %100ean ordaindu zuten obra-, Udalak aurrekontuan 60.000 euroko partida aurreikusi zuen bide horretan argiteria paratzeko, baina azkenean 30.000 euro azpitik erabili dira horretarako. Bertze inbertsioei dagokienez, gainerako argiteria zabaltzeko

20.000 euro aurreikusiak ditu Udalak eta haur parke berrirako 30.000 euro.

ERREPIDEAN ARGITERIA PARATZEKO LANAK

NA 4402 errepidea berritzearekin batera, bide horretan argiteria ere paratu du Udalak. 29.841,23 eurotan esleitu zituen Herriko Etxeak lanak eta dagoeneko finituak ez badaude, finitzearekin egonen dira.

IRIBERE AUZOAN SANEAMENDUA

Iribere auzoan saneamendu lanak ere egin dira. 139.921,33 eurotan Angel Bengoetxea enpresak arduratu da lanak egiteaz.

DANTXARINEAKO PLANA

Nafarroako Gobernuak onartu du Dantxarineko planaren aldaketa. Gisa honetara, lurzoru urbanizaezinak zirenak erabilera komertzialerako bilakatu dira.

KULTURA

HEDABIDEAK → TTIPI-TTAPA, XORROXIN ETA XALOAREN ALDE

Apirilaren 14an Sunbillan egingen da hiru hedabideen aldeko mus txapelketako finala

Ulibeltzak Elkartean jokatu da azken lehia

TTIPI-TTAPA

Xaloa Telebista, Xorroxin Irratia eta TTIPI-TTAPAREN aldeko mus txapelketak aitzinera segitzen du. Dagoeneko herri aunitzetan erabaki dira finalistak zein izanen diren eta aldizkari hau etxeetara ailegatu orduko izen gehiago ere jakinen dira, joan den asteburuan herri aunitzetan jokatzekoak baitziren txapelketak.

Oraingoan, jakin ahal izan diren finalistak hauek



ARGAZKIA: ALAITZ DANBORIENA

Jabier Galarregi eta Iñaki Danboriena –erdian– izanen dira Etxalarko finalistak.

dira: Maitane eta Imanol Etxeberria (Arizkun –8 bikote–), Jose M^a Azkarraga eta Migel Mari Ariztia

(Azpilkueta –8 bikote–), Lorenzo eta Jose Luis Oskoz (Almandoz –16 bikote–), Juan Jose Alun-

da eta Luis Migel Mortalena (Arraioz –8 bikote–), Jose Migel Cordoba eta Joseba Irigoien

(Erratzu –11 bikote–), Jose Altxu eta Joxemi Arizmendi (Ornoz –7 bikote–), Elena Danboriena eta Anika Maritorea (Berroeta –2 bikote–), Jose M^a Etxepeteleku eta Begoña San Julian (Lesaka –4 bikote–), Asier Saragueta eta Patxiku Artieda (Bera –6 bikote–), Jabier Galarregi eta Iñaki Danboriena (Etxalar –8 bikote–). Jokatu gabeko herriz herriko txapelketen artean, erran, Anizeko Mendiarte Elkartean ortziral honetan, apirilak 6, egingen dutela.

Herri bakoitzeko irabazleen artean finala egingen da apirilaren 14an Sunbillako Ulibeltzak Elkartean, 16:00etan.

KULTURA → OSPAKIZUNAK

Ekitaldiz beteriko hilabetea antolatu du Basaizea Kultur Elkarteak Baigorriin

Apirilaren 29an egingen da Nafarroaren Eguna

TTIPI-TTAPA

Apirileko azken igandean Baigorriin egingen den Nafarroaren Eguna eren atarian, aurten ere hilabete osoko kulturaldia antolatu du Basaizea elkarteak. Aldi honetan, Nafarroako konkistaren 500. urteurrena

hartu da gaitzat eta horren harira antolatu dira ekitaldiak.

Apirilaren 13an, presoen gaualdia egingen da Baigorriko Bixentainian. Xutik, Itziarren Semeak eta Askatasunaren alde izanen dira.

Apirilaren 15ean, Alur dantza taldearen 1512, izanak dirau ikuskizuna eskainiko da 17:00etan Baigorriko plaza xoko gelan.

Apirilaren 21 eta 22an, Nafarroako ikastolek eta

hainbat elkarte Etxarri Aranatzan antolatu duten bestarajoateko deia egin dute Basaizeakoek. Egun osoko egitaraua izanen da eta autobusak paratuko dituzte.

Apirilaren 25ean, haurren eguna izanen da.

Apirilaren 28an Lekeitiotik Baigorriat musikal dia eskainiko dute Lekeitiko banda eta Baigorriko gaiteroek.

Apirilaren 29ko egitaraua hurrengo alean aipatuko dugu.



ARGAZKIA: ALAITZ DANBORIENA

Irudian ageri den hau da aurtengo Nafarroaren Eguna iragarriko duen kartela.

GAZTEAK → SARATIK LESAKARA EGINEN DA MARTXA

Jendetza bilduko da ortziral honetan Gazte Martxaren hastapenean

Ortziral arratsaldean irekiko da akanpalekua

Joana GUERENDIAIN

Ortziral honetatik igandera, apirilak 6, 7 eta 8, Gazte Martxa egingen da Sara eta Lesaka artean. Asteburu kargatua izanen dute gazteek.

Ostiral arratsaldez Saran hasiko da, 15:00-etatik goiti akanpalekua irekiko da eta gero animazioak izanen dira herrian zigante, gaitero eta joaldunekin. Bertzalde, hiru gunetara antolatu dira: Mintza (eztabaidatzeko), Dantza (kontzertu ttipi batzuk) eta Jalgi (jokoak kiroldegian). 19:00etan ekitaldi bat izanen da plazan eta 22:00etan bertso guda.

Biharamunean martxa 09:00etan abiatuko da, 14:00etan bazkaria Beran egingen da eta 18:30 inguru Lesakara ailegatuko dira. Han segituko du bestak, mu-

sika, ekitaldi eta kontzertuekin. Xehetasun gehiagorako 10. orrialdean ikus daitezke.

Igande goizean, berri, 08:00etan esnatuko dira Goinetxe triki Sound systemekin eta 09:00etan autobusak abiatuko dira Iruñera Aberri Egunarentzat.

Dudarik gabe, asteburu on bat pasatzeko aukera izanen da.

Olhain Ikastola

Jende ainitz ibili zen joan den martxoaren 10ean Olhain ikastola-ko ate idekietan eta Kattin Bergara lehendakariak eskertu egin zituen

langile eta ikasleen ize-
nean. Historia pixkat bat
kontatze aldera, Olhain
ikastola, 1977an antola-
tu zen garaian ama es-
kola zen bakarrik, zazpi
hurrekin. 27 urte be-
rantago, borroka luze
baten ondoren, CM2rai-
no joaten ahal da Sara-
ko ikastolan. Haur ko-

puruak emendatze han-
di bat ezagutu du, gaur
egun 80 ikasle baitira.
Ekiparen aldetik badu-
gu irakasleeta Marie-Jo
Berruet, Maiana Mendi-
boure, Bixente Etxega-
rai, Xantal Maia, Laurence
Lafitte; kasu emai-
leetan Karmen Ondico-
la, Bittori Etxeberri, An-
doni Garbizu; Integra-
zio Batzordetik Saroia
Galarraga eta AVS-ak
Iraun Zabaleta eta Joa-
na Guerendia in.

Ekitaldiz beteriko asteburua izanen da

Ekimen kultural andana izanen dira asteburu honetan, larunbat, igande eta astelehenean.

Alde batetik, igandean, apirilak 8, iluntzarekin Sarako Ondareak **kantaldi** bat antolatu du Jean Bordaxar, Saiberri, Elisa Perotxena eta Iñaki Gerendia in kantalariekin. Sar-tzea 10 eurokoa izanen da eta urri-rik 16 urte arte.

Horrez gain, hiru egunetan, bi **erakusketa** antolatuak dira. Bat li-buruari buruz, Lur Berri gelan, 10:30etik 19:00etara eta bigarrena denen etxean, 10:00etatik 19:00 ar-te, pintura erakusketa bat izanen da.

Eta astelehenean, apirilak 9, Tu-rismo Bulegoak 29. **Euskal Herri-ko Idazleen Biltzarra** antolatu du. Usaian bezala, kiroldegian iraganen da egun osoan.

Salmentak

Apirilaren 5etik 9ra 10:00etatik 18:00etara, ikastolako burasoek Herri Urratseko jantziak salduko dituzte plazan. Apirilaren 7an eta 8an goizez Sarako Urtxintxa elkarteak pastizak eta bazkoko xokolateak salduko ditu.

Kirol emaitzak

Sarako errugbilariek Arrangoitzeko taldearen kontra irabazi dute, 10-6. Aldiz, Urtxintxak galdu egin du Arudyren kontra, 14-19.

SENPERE

OSPAKIZUNAK → IKASTOLEN BESTA

Xalbador ikastegiko berritze eta haunditze lanak lagunduko ditu aurten Herri Urratsek

Gaur egun, 250 ikasle ditu Kanboko ikastegiak

Franck DOLOSOR

Gero eta gutiago falta da berriz ere giro paregabeaz gozatzeko Euskal Herriko aintzira ederrenean, erran nahi baita hogoita bederatzigarren Herri Urrats Ipar Euskal Herriko ikastolen aldeko besta ospatzeko Ortzango erre-karen bazterrean. Gan den urtean bezala, aurtengo irabaziekin Kanbon dagoen Xalbador ikastegia lagunduko dute. Duela hiru harmarkada Herri Urrats sortu zen ikastegi hori diruz laguntzeko, eta geroztik ehunka gazte pasatu dira eskola horretatik, horien artean senpertar andana. Gaurko egunean, 11 eta 15 urte arteko 250 ikasle ditu bigarren hezkuntza eskaintzen duen ikastetxe hunek. Ikastegi historikoa da Seaskaren bigarren maila hor hasi baitzen eta euskararen hedapenak aro berria bizi baitu Kanboko eskolan. Orain bortz milioi eta erdi euroko lanak egin behar dituzte. Iparaldeko erakunde publikoek erdia ordainduko dutela hitz eman dute bainan gainerakoa euskaltzaleen esku gel-

ditu baita, aurten ere denen beharra izanen du Herri Urratsek.

Lehen aldikoz, La Troba Kung Fu Kataluniako taldeak egin du musika. *Elkartuz zabaldu* lelopean ospatuko den besta haundian parte hartuko dute eta beren ondoan agertuko dira Zarama, Su ta Gar, Gose eta Bidaia taldeak, eta Anje Dualde.

Dena den, Herri Urrats musika jaialdia baino gehiago da, beharrezkoa baita euskarazko murgiltze irakaskuntza eredu bakarra laguntzeko euskarak orain-



ARGAZKIAK: FRANCK DOLOSOR

Maiatzaren 13an egingen da aurtengo Herri Urrats besta.

dik inolako ezagutzarik ez duen lurraldean.

Senpertarrak idazle

Bazko astelehenez, liburuzaleek hitzordua dute Saran, Idazleen Biltzarraren karietarat, eta aurten ere herriko idazleak hantxe izanen dira. Auxtin Zamorak *Hatsaren Poesia 2011* eta *Hatsaren Poesia 2012* liburua eta Henri Duhaik Gratien Adema

Zaldubiren *Bertze Prediku Batzuk* aurkeztuko dituzte. Peio Jorajuriak, bere aldetik, *Inifife* euskarazko liburua agertuko du Magreberat lagunekin egin duen bidaiaz.

Mayi amatxi berriz!

Betiko senpertarren artean norke ez du ezagutzen Mayi Valencia, sortzez Alzuaga? Amotzen sortua Helbarrungo auzoan bizi da aspalditik

familiaz inguratua goxoki. 90 urtetan gertakari arraroa bizi izan du bere alaba baten alabaren alabak alaba izan baitu berriki! Erran nahi baita badirela familia hortan bortz belaunaldi, bortz adin desberdinetako emazteak. Gutitan ikusten den balentria edo gertakari zinez atsegina. Goraintziak Mayi eta segi bizkor orain arte bezala!



Luis ORDOKI ESTEBERENA *Gaxtelu*

Lesaka, 2012ko otsailaren 23an, 89 urte zituela

Aldatu dire garaiak, pasatu dire urteak, biño gaur Nabazen bama berdinak dire haizeak zuk sendotutako enbometatik datoz adar gazteak, bizia ematen digulako 'gaxtelua' zutik mantentzeak. Tristura ematen badigu ere zu berriz ez ikusteak, zuetzako inekiak beti ataxi, gure bihotzetako ateak.

Gero arte, ataxi

ZURE BILOBAK ETA BIRLOBAK



Maritxu BABACE JUANICORENA

Legasan, 2012ko martxoaren 17an

Bizitzari gogo guziekin heldu diozu eta sobera agudo joan bazara ere, erakutsi diguzun indar ikaragarri eta zure oroitzapen ahaztezinak bihotzean ditugula egingen dugu aitzina.

MATTE ZATTUGU! MUXU BAT!

ZURE FAMILIA



SORTZEAK

Alazne Baleztena Goñi, Arantzakoa, martxoaren 14an.
Nerea Hérédia Irigoien, Sarakoa, otsailaren 23an.
Haritz Aranberri Apezetxea, Goizuetakoa, martxoaren 16an.
Eñaut Babaze Salaburu, Zubietakoa, martxoaren 21ean.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.

EZKONTZAK

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.

HERIOTZAK

Francisco Telletxea Elizondo, Igantzikoa, martxoaren 13an, 89 urte.
Jose Luis Mendiburu Martin, Zubietakoa, martxoaren 15ean, 64 urte.
Maria Mikaela Babaze Juanikorena, Legasakoa, martxoaren 17an, 57 urte.
Juan Arizmendi Elizetxe, Elizondokoa, martxoaren 18an, 86 urte.
Mañoli Zozaia Maia, Berakoa, martxoaren 18an, 98 urte.
Juana Agesta Zugarramurdi, Sunbillaakoa, martxoaren 20an, 84 urte.
Jesus Mari Ruiz Astiz, Doneztebekoa, martxoaren 23an, 73 urte.
Gabino Santxotena Sukilbide, Erratzukoa, martxoaren 24an, 88 urte.
Francisco Mindegia Irigoien, Sunbillaakoa, martxoaren 23an, 86 urte.
Mari Carmen Soto Martin, Elizondokoa, martxoaren 26an, 76 urte.
Marie-Thérèse Etcheverrigarray, Sarakoa, martxoaren 12an, 87 urte.
Yolande Dubouch, Sarakoa, martxoaren 18an, 79 urte.



Fernando ARBURUA MIHURA

Beran, otsailaren 18an hil zen, 69 urte zituela

Etxalar izan zenun sorleku handik etorri Arantzara, zure ondoan zure lagunak pozik bizi izan gara. Senar goxoa aita xamurra gizon ona izan zara, gogoan dugu alaitasunaz zure bizitzeko garra eta zure irrifarra.

ETXEKOAK

Zenbat maitasun zenbat bizipen bizi izanak elkarrekin, bizitzea ta gozatzea ere oso erraza zen zurekin. Atsedean gabe bizi izan zara beti ekin eta ekin, besarkada bat maite zaitugu Fernando zuk ez aldegin betiko zaude gurekin.



Joseba Andoni URDANTZ ETXEBERRIA

1969ko apirilaren 12tik 2002ko apirilaren 2ra

X. URTEURRENA

Udaberriak bizia ekarriz Zure askatasun modua gogoratzen du Zure ametsak buruan izanik Zure indarra guria egiten dugu.

GURASOAK ETA SENIDEAK


TXIRRINDULARITZA → EUSKAL HERRIKO ITZULIA

Euskal Herriko Itzuliko bi etapa Bera, Lesaka eta Saratik pasako dira

Apirilaren 5ean Ibardinen bukatuko da etapa eta biharamunean Beratik abiatu

TTIPI-TTAPA

Eusko Jaurlaritzak dirulaguntzajaitsi ondotik, antolatzaileek Euskal Herriko Itzulia arriskuan zegoela adierazi zuten, baina aurten behintzat egitea erabaki dute. Astelehen honetan, apirilak 2, abiatzekoa zen Euskal Herriko 52. Itzulia eta sei etapa izanen ditu. Eskualdetik ere pasatuko da, laugarren eta bos-



Euskal Herriko Itzuliko laugarren etapa Lesaka, Bera eta Saratik barna pasako da.

garren etapak Beran bukatu eta hasiko baitira.

Apirilaren 5ean Eibartik abiatuko da lau-

garren etapa eta txirrindulariak Oiartzundik pasatuz, Aritxulegi eta Agiñatik barna pasako di-

ra. Handik Lesakara jautsiko dira eta Berarako bidea hartuko dute gero. Behin Berara

ailegatuta, Ibardin alde-rako bidea hartuko dute. Handik Azkainera joanen dira eta gero Saratik berriz Berarantz eginen dute eta gero Ibardinera. Hemen bukatuko da 151 kilometroko etapa. Eskualdean barna eginen dute ibilbidean, lehenbiziko (Ibardin) eta bigarren mailako (Aritxulegi, Agiña eta Ibardin) mendeak pasatuko dituzte.

Apirilaren 6an, Beratik abiatuko da Euskal Herriko Itzuliko bosgarren etapa. Beratik Irun aldera joanen dira txirrindulariak eta gero, Oiartzunera joanen dira, 183 kilometroko ibilbidea Oñatik bukatzeko.

PILOTA → LAXOA ELKARTEAK ANTOLATUTA

14 taldek parte hartuko dute Baztan-Bidasoaldeko XXXIII. Laxoa Txapelketan

Final handia Arraiozen eginen da abuztuaren 4an

TTIPI-TTAPA

Aspalditik urteko hitzordu nagusietako bat bihurtua den Laxoa Txapelketak aurten ere ez du hutsik egin: XXXIII. Laxoa Txapelketa abian da.

Maiatzerako ligaxkako partidak jokatu dituzte pilotariek, taldeka hiru multzotan banatuta. 14 talde ari dira lehia eta

multzo bakoitzeko zortzi talde onenek final-laurdenetarako txartela lortuko dute. Ekainaren 24an eta uztailaren 1 eta 8an jokatu dira. Ondotik, uztailaren 15, 22 eta 29an finalurrekoak eginen dira eta finala abuztuaren 4an Arraiozen.

TALDEETAKO PARTAIDEAK

Arraioz A: Iñaki Mihura, Jon Gamio, Asier Zubigarai eta Jesus Mari Larnagarai. **Arraioz B:** Xabier Bengoetxea, Aitor Zubigarai, Migel Maritoren eta Sergio Nava-

ro. **Arraioz C:** Xabier Mihura, Mikel Mindegia, Aritz Alunda eta Xabier Maritoren.

Doneztebe A: Santi Mindegia, Pascual Bertiz, Jokin Arraztoa eta Koldo Legarra. **Doneztebe B:** Asier Mutuberria, Jaber Almandoz, Jokin Apezetxea eta Juan Telletxea. **Doneztebe C:** Jose Manuel Mitxeloren, Josu Juanena, Mikel Mutuberria eta Fermin Jorajuria. **Doneztebe D:** Unai Sapuppo, Xabier Ibarrola, Andoni San Martin eta Joseba Grazenea. **Do-**



Joan den urteko laxoa txapelketan, Azkarate jokoa.

Doneztebe E: Ramontxo Etxebeste, Jon Apeztegia, Aritz Baleztena eta Joseba Juanena. **Doneztebe F:** Lander Erkizia, Emilio Zabala, Josetxo Ezkurra eta Bittor Mendiburu. **Doneztebe G:** Jokin Telletxea, Pedro J. Martin, Mikel Etxekolonea eta Ander Bertiz. **Irurita A:** Guillermo Etxe-

nike, Joseba Urtasun, Jesus Etxenike eta Xabier Ripa. **Irurita B:** Xabi Barberena, Igor Urrutia, Migel Bidegain eta Iñaki Etxandi. **Irurita C:** Joxe Mari Salaburu, Karlos Goikoetxea, Jagoba Ramos eta Mikel Azpiroz.

Oiz: Sergio Fagoaga, Iker Bereau, Iñaki Mendiola eta Ugutz Zelaieta.

MENDIA → MARTXAK

Arantza, Baztan, Lesaka eta Aresoko mendi itzuliak egingen dituzte aurten

Arantza eta Baztangoa maiatzean, Lesakakoa ekainean eta Aresokoa irailean

TTIPI-TTAPA

Nafarroan aurten egingen diren mendi marxen egutegiak zehaztuak daude. Dagoeneko horietako batzuk eginak ere badira, Corella eta Altsasukoa kasu. Baina oraindik ere badira gehiago, eta tartean daude eskualdeko lau: bi urtetik behin egingen diren Arantza eta Lesa-



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Duela bi urteko Arantzako Mendi Itzuliak 704 lagun elkartu zituen. Aurtengoa maiatzaren 20an egingen da.

kako mendi itzuliak eta urtero egingen diren Baztangoa eta Aresokoa. Ekaitza Elkarteak anto-

latutako **Arantzako Mendi Itzulia** maiatzaren 20an egingen da. 30 kilometroko itzulia iza-

nen da, bi kilometro gehiago egiteko aukerarekin. Baztango Mendigoiza-

leek antolatutako **Baztango XIX. Mendi Itzulia** Amaiurren egingen da aurten, maiatzaren 27an. 35 kilometroko ibilbidea 2.000 metroko desnibela izanen du.

Lesakakoa hartuko dio Baztani lekukoa eta ekainaren 17an egingen da Beti Gazte Elkartearen eskutik **Lesakako XI. Ibilaldia**. Bi ibilbide izanen dira aukera: 21 kilometrokoa (1.100 metroko desnibela) edo 33 kilometrokoa (1.700 metroko desnibela).

Aresokoa, irailean 2an egingen da. 26 kilometroko ibilbidea egin beharko dute mendizaleek, 1.200 metroko desnibela duen itzulia.

MENDI LASTERKETAK → APIRILAREN 15EAN EGINEN DA

500 korrikalari espero dira Berako Mendi Maratoi Erdian

300 euroko saria izanen da Didier Zagoren errekorra hobetzen duenarentzat

TTIPI-TTAPA

Apirilaren 15ean jokatuko den VIII. Berako Mendi Maratoir Erdiak 450 partaide baino gehiago izanen ditu. Martxoaren 15ean ireki zen izen ematea eta ordu batez agortu ziren 450 dortsalak. Itxaron zerrendan, azken ordu-

ko hutsegiteen zain, 150 kirolari daude eta bertze zenbait antolakuntzak zuzenean gonbidatuko ditu, beraz, 500 korrikalari inguru espero dira.

Manttale Mendi Lasterketa Taldeak, Gure Txokoak eta Agerra Mendi Taldeak 150 bolondres bilduko ditu antolakuntzan laguntzeko. Iaz bezala, Larungo pasoa zuzenean emanen da eta helmuga puntuan paratuko den pantaila handi batean ikusterik izanen da.

Iaz Nafarroako Klubaren arteko txapelketa

izan zen Berako lasterketa eta aurten Nafarroako Mendi Lasterketen Koparako lehen proba puntuagarria izanen da. Iaz kopa irabazi zuen Manttaleko Unai Santamaria hernaniarrek iazko garaipena errepikatu nahiko du, Berako lasterketan itxurara ona emanez.

IBILBIDEA ETA SARIAK

Lasterketaren ibilbidea betikoa izanen da, Beatik atera eta 2.714 metroko desnibela gainditu beharko da 21 kilometrotan. Larunmendia (900 metro) izanen



UTZITAKO ARGAZKIA

Martxoaren 27an egin zen probaren aurkezpena Ibarbingo Mendiko sagardotegian.

da punturik garaiena. Sariei dagokienez, bi kategoriatan nagusietako garaileek 300 euroko saria eramanen dute, 250 euro bigarrenak eta 200 euro hirugarrenak. Iaztik Didier Zago frantziararren esku dagoen errekorra gainditzen duenak (1:38:11), bertze 300

euro jasoko ditu eta Ibarbingo tarteko helmugatik pastasen den lehen lasterkariak ere 150 euroko diru saria eramanen du, proba bukatuz gero. Bertze urteetan bezala, korrikalari guzietan opari poltsa bat jasoko dute, hainbat produktorekin hornitua.

apirilak 5 - 19

Informazioa bidaltzeko: info@ttipi.net edo 948 63 54 58

Feriak



ELIZONDO | 2012.04.13

Ahari lehiaketa eginen da Udaberriko Feriaren baitan

Goizeanazienda feria eta ahari lehiaketa, eskulangileak, txistulariak, dantzariak eta baztan-zopak. Arratsaldean birziklatze tailerra haurrendako.

Kontzertuak



ELIZONDO | 2012.04.14

Trikidantz taldeak kontzertua eskainiko du Lur aretoan

Lur aretoan emanaldia eskainiko du Trikidantz taldeak, 00:30etik aitzinera. Sarrera 9 eurotan egonen da salgai. Giro ederrean dantzaz aritzeko aukera bikaina.

Biltzarrak



SARA | 2012.04.09

Euskal Idazleen Biltzarra Bazko Astelehenean

Turismo Bulegoak 29. Euskal Herriko Idazleen Biltzarra antolatu du kiroldegian. Aitzineko egunetan kantaldia eta erakusketak ere izanen dira Saran.

go plazan eginen da Malerreka Kantuz ekimenaren bigarren saioa 19:30ean.

BAIGORRI

Alurr dantza taldea

Apirilaren 15an Alurr dantza taldearen 1512, *izanak dirau* ikuskizuna Plaza xoko gelan 17:00etan. Nafarroaren Eguna girotzeko Kulturaldia baitan.

SARA

Idazleen Biltzarra

Apirilaren 9an. Xehetasunak 49. orrian.

Ikastaroak

AMAIUR

Xaboa egiteko ikastaroa

Apirilaren 13an xaboa egiteko ikastaroa eginen da Amaiurko Ostatuan, Otsondo barride elkarteko egoitzan, 16:00etatik 19:00etara. Izen emateko: *otsondo@terra.es*.

BORTZIRIAK

Aisialdiko begiraleak

Apirilaren 20, 21 eta 28an eginen da aisialdiko begiraleentzako ikastaroa, Bortzirietako Euskara Mankomunitateak antolatua. Izenematea martxoaren 26tik apirilaren 4ra zen.

ERRATZU

Ingelesa bidaiatzeko tailerra

Apirilaren 18an hasita, asteazkenetan ingelesa bidaiatzeko tailerra eginen da Erratzuko Elkartearen, 20:00etan, Erratzuko Kultur Elkar-teak antolatuta.

Lehiaketak

BAZTAN

Baztandarren Biltzarrerako kartela

Apirilaren 20an akituko da Baztandarren

Erakusketak

BERTIZ

Alatz Lopezen lanen erakusketa

Apirilaren 1etik maiatzaren 1era *Artea erraminta bezala (El Arte como herramienta)* Alatz Lopezen artelaren erakusketa ikusgai Bertizen.

LESAKA

Sanferminetako kartel eta azalak ikusgai

Apirilaren 3tik 15era ikusgai izanen dira Beti Gazte elkartearen Sanferminetako kartel eta azal lehiaketetara aurkeztutako lanak.

Ospakizunak

BERA

Arkupeak elkartearen Soinketa Eguna

Apirilaren 12an eginen da Toki-Ona kiroldegia Arkupeak elkartearen urteroko Gimnasia Eguna.

LESAKA

Gazte Eguna

Apirilaren 14an Gazte Eguna antolatu du Lesakako Gazte Asanbladak. Xehetasunak 22. orrian.

Solasaldiak

ELIZONDO

Agotei buruzko liburua aurkezpena

Apirilaren 13an Kepa Arburua Olaizolaren *Agote secreto revelado* liburua aurkezpena solasaldia, Arizkunenean 19:30ean.

Kontzertuak

ELIZONDO

Trikidantz Lur aretoan

Apirilaren 14an Trikidantz taldeak emanaldia eskainiko du Lur

aretoan 00:30etik aitzinera. Sarrera: 9 euro.

LESAKA

Gazte Martxo kontzertuak

Apirilaren 7an Gazte Martxo dela eta kontzertuak izanen dira 22:00etan hasita: Gaubela, Skatu, Governors, Willis Drummond eta Anai Arrebak.

BAIGORRI

Presoen gauldia

Apirilaren 13an Xutik, Itziarren Semeak eta

Askatasunaren alde taldeek emanaldia 21:00etan Bixentainian.

BERTIZ

Kontzertua eta margoa

Apirilaren 8an Solaris Jazz Trash taldeak kontzertua eskaini bitartean Aratz Lopezek bertan egindako margolana zozketatuko da. 11:30ean.

Ekitaldiak

ITUREN

Malerreka kantuz

Apirilaren 6an Ituren-

PROPOSAMENA

BERA

Arkupeak elkartearen Soinketa Eguna

Urte osoan gimnasia eta yoga egiten duten Arkupea elkarteak ki-deek bere erakustaldia eginen dute apirilaren 12an, 11:00etatik aitzinera Berako Toki-Ona kiroldegian. Gimnasiari esker «zauli eta animoso» mantentzen direla aipatzen dute aunitzetan eta hori erakusten saiatuko dira berriz ere. Izerdialdiaren ondotik, bazkaltzera geladituko dira.



Biltzarreko kartel lehiaketara lanak aurkezteko epea.

Feriak

Udaberriko Feria

ELIZONDO

Apirilaren 13an Udaberriko Feria antolatu du Baztango Udalak, Bertizko Partzuergo Turistikoa, Elizondoko herria eta Cederna-Garalurren laguntzaz. Goizeanazienda feria, ahari lehiaketa, esku-langileen produktuak, txistulariak, dantzariak eta baztan-zopen dastatzea. 13:30ean sari banaketa. Arratsaldean bertako produktuak eta Udaberriko birziklatze tailerra haurrentzako.

Zinema

DONEZTEBE

Zinema martxan

Martxoaren 25ean *Ice Age 3* filma euskaraz ikusgai izanen da zinean 17:00etan eta *Colombiana* filma 19:00etan. Mendaur eta Erreka Guraso Elkarteek antolatua.

Mendi ateraldiak

BAZTAN

Baztango

Mendigoizaleak

Apirilaren 15ean

Hondarribira ateraldia eginen dute Baztango Mendigoizaleak.

SUNBILLA

Ulibeltzak Mendi Taldea

Apirilaren 7-8an

Moncayora joanen da Ulibeltzak Mendi Taldea. (06:00).

SARA-LESAKA


Gazte Martxa

Apirilaren 6 eta 7an

Sara eta Lesakako arteko mendi martxa antolatu du Jalgi Hadi Garaipenera gazte mugimenduak.

ENTRETENIMENDURAKO GAIAK

Liburua



Orbe auziaren ingurukoak

IÑAKI IRASIZABAL

Elkar, 2012

Joseba Orbe idazleak, irratsaio batean, bere hurrengo liburua iragarri du, gai minbera bat ukitzen duela eta polemika piztuko omen duena. Handik gutxira, mendi-bide batean agertuko da Orbe, modu lazgarrian hilda. Kasuak zeresana emanen du, gizartearen ez ezik baita hedabideetan ere, Espainiako irrati-tertulia atzerakoiak eta telebista-saio arrosak barne, baina uste ez bezalako bideak hartuko ditu ikerketak.

Iñaki Irasizabalek, nobela berri honetan, gizarteko hainbat joera aztertzeko baliatzen du hilketaren inguruko zurrunbiloa: gurasoek beren seme-alabekin duten nora eza, bortxakeriaren eta moralaren arteko harremana, komunikabideen manipulazioa eta axalkeria... Egileak adierazitakoaren arabera, «ardura etiko eta penalen arteko diferentzietan buruzko hausnarketa» egin nahi zuen eleberri honetan.

Musika




Faktore komunak

ENKORE

Baga-biga musika ideiak, 2012

Enkore taldeari beri eskatu ahal izanen zaio *bertze bat, bertze bat...* Enkore taldearen izenak hori erran nahi baitu ingeleraz. Enkore taldea Bilboko Errekalde auzoan gauzatuko dute 2009an. Hiru urtez hiru lan labur egin eta hainbat sari jaso zituzten. Enkore taldearen lehen lan luzea, *Faktore komunak* izenburukoa da. Melodia eta abiadura. Melodia eta leloak. Melodia eta dantza. Melodia eta punkaren popa. Melodia eta amorrua. Melodia eta rockaren bizitasuna. Melodia eta egunerokotasunaren freskotatasun xumea. Melodia kutsakorretan du oinarri Enkore taldeak. Hardcore melodikoaren alderik indartsuena lelo eta mezueta ageri da. Enkore taldeak eta hardcore melodikoak faktore komunak dituzte. Kantu gazi-gozaok. Kantuen goxotasuna zorrotzasunarekin lotuta. Enkore taldeak faktore horiekin jokatzeko du abestiak egiteko eta emaitza entzungarria egiten zaigu.

Internet



Euskal Herriko lehen turismo gida interaktiboa

WWW.IHESI.COM

Euskal Herriko zazpi lurraldeetako herriak oinarri hartzen dituen lehen turismo webgunea martxan jarri da gaur. Euskal Herriaren Ihesi izena du eta ihesi.com helbidean kontsulta daiteke. Non jan dezaket Santurtzin? Zer ikusi behar nuke Tuteran? Non egin dezaket lo Ezpeletan? Eta Bergaran banoa zerbait bereziki ikustea gomendatzen al dute? Euskal Herriaren bidaiatzen dugunean sortzen zaizkigun eguneroko galderei erantzuna eman nahi die webguneak eta horretarako, erabiltzaileen proposamenetan oinarritzen da osoki.

Informazioa lurraldeka eta zonaldeka sailkatuta dago. Behin bila zabilten herriaren fitxan sartuta, herriari buruzko informazio orokorra, argazkiak, eta informazio baliagarria topatuko du erabiltzaileak. Ondotik, erabiltzaileek egindako gomendioentzat lekua dago herri guztietan.

Nire aukera



Mari Jose ZOZAIA
Berako Yoan Ileapaindegikoa

«Kirola egitea gustatzen zait eta ingelesa ikasten ere hasi naiz orain»

Joan den urteaz geroztik, ordutegi jarraia egiten dute ileapaindegian eta horrek, arratsaldeak «librexeago» uzten dizkiola aipatu digu Mari Jose Zozaia. Eta libre duenean, «kirol pixka bat egitea» gustatzen zaio, «kiroldegian edo bizikleta hartuta». Horretaz aparte, orain ingelesa ikasten ari da. Asteburuari begira denetarik egitea gustatzen zaio: «Etxe berria egin dugu eta hor ibili gara saltseatzen, udaberri-udan bizikletan ibili goizean eta arratsaldean hondartzan ibili, Algortan eta Getxon ditugun lagunak bisitatu... ateratzen dena!». Oporrak normalean Aste Santuan hartzen ditu eta kanpora atera ohi da: «Iaz Greziako irletan izan ginen, Egipton izan gara, Errepublikan Dominikarrea, Holandara... Europa iparraldera joatea gustatuko litzaidake». Uda partean egun guttiago izaten ditu eta hemen inguruan ibiltzea gustatzen zaio, «Pirinioetan edo Frantzia aldean». Zinean «filma frantziarrak» gustatzen zaizkio.

ETXEBIZITZAK**salgai**

ETXALAR. Lizaietako parajea zaharberritzeko borda salgai, lur eremuarekin. ☎661 121540.

LESAKA. Etxebizitza bifamiliarra salgai. Prezio onean. ☎609 477277.

ELIZONDO. Maurizio Berkoetxean (eliza gibelan) pisua salgai. eguzkitsua, 2 logela eta bainugela, egongela, sukalde eta balkoi ederra. Apartakete plaza eta trastelekua. Igoailua aparkalekutik sabairaino. ☎628 544929.

BERA. Apartamentua salgai. ☎630 441315.

ANZABAL
INMOBILIARIA

BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA eta IPARRALDEAN

- Pisuak, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.

IPARRALDE eta BIDASOA alderdian

- Eskaintzagatik baserriak, bordak eta lurra behar ditugu.

ZUGARRAMURDI

- Baserria salgai 80.000 metro²ko lur eremuarekin.
- Etxe adosatuak bere lurra-ekin salgai.

Tel. 948 580 804
Faxa. 948 581459
anzabal@anzabal.com

DONEZTEBE. Merkatarien Karrika 22an, Irrintzi ostatuaren ondoan, 90 m²ko pisua salgai. 3 logela, egongela handia, komun handia eta trastelekua. Berogailuarekin. Balakoa. 2 ate sarreran. Moldataua, haritzarekin moblezatua. Garaje plaza. 150.000 euro negoziagarriak. ☎617 792401.

ELIZONDO. Pisua salgai. 3 logela, sukalde, komuna eta trastelekua. Moblezatua. ☎620 778953 (13:30-14:30).

IGANTZI. Herri erdian etxea salgai. 4 logela, 2 komun, egongela, sukalde, portxea, igerilekua,

MERKATU TTIKIA

948 63 54 58

info@titi.net edo www.titi.net

SAIL HONETAN **IRAGARKIA** JARTZEKO **8€** ORDAINDU BEHAR DA **ARGAZKIAREKIN** JARRI NAHI IZANEZ GERO **10€**

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta TELEBISTA eta INTERNETen hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako 3008 0080 56 0703304329 kontuan

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik

garaje itxia, eta 300 metro koadroko terrenoa. ☎667 973563.

ELBETE. Etxebizitza adosatua salgai. 4 logela, egongela, sukalde handia, bi bainugela eta bi komun. Lorategia, garajea eta txokoa. 248.000 euro. ☎618 628222.

BERA. 85 m²ko pisua salgai herri erdian, berokuntza eta terrazarekin. Sukalde ekipatua. ☎699 646257.

BERA. Eztegaran pisua salgai. 4 logela, sukaldetantokia, 2 bainugela, ganbara eta kanpoko lorategia. Pisuak 137 m² ditu

eta ganbarak 30 m². ☎688 695812.

ELIZONDO. Maurizio eta Felix enparantzan Babes Ofizialeko etxebizitza salgai edo errentan emateko. Hiru logela, bi bainugela, sukalde, egongela, trastelekua eta garaje plaza-ekin. Eguzkitsua eta moblezatua. Salmentako prezioa 21.500.000 pzt. (129.217 euro) eta alokairurako prezioa 350 euro. ☎616 510624 / 948 580683.

NARBARTE. 87 m²ko pisua salgai, berritua, 30²ko garajea eta 100²ko ba-

ratzearekin. Eskaintza erakargarria! 148.000 euro. ☎630 402039.

ETXEBIZITZAK**erosi**

LESAKA. Pisua edo etxea erosi nahi da. Guttienez 3 logela, egongela, sukalde eta bainugela/k izan beharko lituzke. Eskaintzak egiteko prest. ☎699 116595.

ETXEBIZITZAK**errentan emateko**

ELIZONDO. Herri erdian eta toki lasaian pisua

errentan emateko. Berogailuarekin eta igogailuarekin eta guztiz moblezatua. ☎948 637283.

ETXALAR. 2 logela errentan emateko. ☎635 706614.

DONEZTEBE. Zazpigarutze auzoan moblezatutako pisua errentan emateko. 3 logela, 2 bainugela, egongela, sukalde eta trastelekua. Igoailuarekin. ☎660 674328.

IGANTZI. 70 m²ko pisua berria errentan emateko (500 euro) edo salgai (180.000 euro). 2 logela, bainugela, sukalde-egongela, trasteleku eta garaje handia, kalefakzioa. Oso argitsua eta zonalde lasaia. ☎670 218613.

ELIZONDO. Akullegi Karrikan, 2 logelako pisua errentan emateko. ☎646 774117.

LEGASA. Pisua berritua eta moblezatua errentan emateko. ☎677 089046.

BERA. Altzatan, pisua moblezatua errentan emateko. ☎696 084284.

BERA. Iturlandeta 3, 4A pisua errentan emateko. ☎617 565487 / 697 243644.

DONEZTEBE. 92 m²ko pisua errentan emateko. 3 logela, 2 komun, egongela eta sukalde handiak. Gela guztiek kanpora ematen dute, eguzkitsua. Moblezatua. Berogailua. ☎699 798207.

LESAKA. Duplexa errentan emateko. Logela bat,

HARBIZTI

PISUAK • GANBARAK • GARAJEAK
LOKALAK

Informazioa eta salmenta
607 946 785 - 948 109 818

BELURRA

BASERRIA

DATU ITURRIA: **NAFARROAKO GOBERNUA**
(martxoaren 16tik 23ra bitarteko prezioak)

ZERRIKIA 

Zerrikumea
(19 kilo): 48,00 € (-2,00)

Zerri gizena
1,294 € kilo. (=)

Zerramak:
0,570€ Kg/bizirik. (=)

BEHIKIA 

Aretze gizenak:
Idixkoak: €/kg. Kanal
Extra 4,40 (=)
1.koa 4,10 (=)
2.koa 3,86 (=)
Urruxak: €/kg. Kanal
Extra 4,46 (=)
1.koa 4,18 (=)
2.koa 4,08 (=)

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.
Aretze tikiak
(15 egun ingurukoak):
Aretze mestizoak:
urruxak 100,00 (=)
idixkoak 210,00 (=)

Aretze nabarrak:
urruxak 110,00 (=)
idixkoak 120,00 (=)
Zaldikoak: €/k
Sortuberriak: 2,91/3,01
Zaldi-behorrak: 1,81/2,01
Bildotsak: €/k
6-8 kilokoak: 5,80/6,20
8-10 kilokoak: 4,60/4,80

bainugela, sukaldea, egongela. Zaharberritu-tako etxea. Inguru lasaian eta hagitz politean. 2 lagunentzako aproposa. ☎658 943702.

ELIZONDO. Pisu zentrikoa errentan emateko. Igoailuarekin eta mobilizatua. ☎600 618485.

BERA. Estreinatua gabeko pisua errentan emateko. 2 logela, komuna dutxarekin, egongela, sukaldea eta horiez gain, 20 m²ko terraza. Dena altzari berriekin. Herri-sarreran dago, gasolindegitik 100 metrotara eta Behobiatik 10 minutura. ☎650 603871.

LURRAK/ORUBEAK

salgai

ARIZKUN/BOZATE. 2.000m²ko lur rustikoa salgai. Prezio interesgarria. ☎649 939074.

LANA

eskariak

BERA. Emakume euskaldunak interna moduan lan eginen luke. ☎948 631048 / 692 715608.

Mutil euskaldunak zerbitzari moduan lan eginen luke, esperientzia haundiarekin. ☎630 946241.

Zonaldeko emakumeak zainketa palatiiboak eginen lituzke. ☎696 104849.

DONEZTEBEN edo INGURUAN emakume euskaldunak ordu batzuek lan eginen luke, garbiketan edo haurrak zaintzen. ☎699 798207.

LANA

eskaintzak

IBARDIN. Benta batean asteburuetan lan egiteko pertsona bat behar da, frantsesa dakiena (lau orduz). ☎948 630709.

Ile-apaindegi baterako esperientzia duen pertsona bat behar da. ☎636 827980.

ZUGARRAMURDI-SARRA. Jatetxe batean uztailan eta agorrilean eta

eguerdi eta arratsetan zerbitzari lanetan aritzeko pertsona bat behar da. Esperientziaduna eta euskalduna. ☎686 561525 / (0033) 559 542131.

BERA. Sukaldaria eta zerbitzaria behar dira bazkariak emateko, asteburuetan bakarrik. ☎650 981950 / 948 631658.

ANIMALIAK


galdu/aurkituak

Bihor gaztea desagertu da Goizuetatik. Gaztain kolorekoa, ezkerreko belarri punta moztua eta bertan atzetik laina eta pikoa. ☎646 750974.

ANIMALIAK

salgai

3 urteko **zaldia** salgai. ☎686 812286.



ANIMALIAK

erosi

Larruak biltzen dira (bildots, ardi, aretze, ...). ☎678 896909.

ANIMALIAK

denetarik

4 urteko **ahari** mutur zuria eta adarrik gabea, **ardi** baten truke emanen nuke. ☎620 036553.

MOTORRAK

salgai

Nissan Terrano II, 2.7 TDI autoa salgai, 125 CV. 3 atekoa. AA, EE, aitzineko defentsa eta engantzea. 130.000 kilometroekin. Suspentsio altxatuak. Berde iluna, kanpotik eta barrenetik arrot ongi. Prezio onean. ☎617 792401.

Land Rover Freelander 2.0 TD4 S autoa salgai, 112cv, 2003koa, 160.000

kilometroekin, diesela, 5 atekoa, egoera ezin hobean. ☎666 618575.



Suzuki vitara autoa salgai, 5 atekoa, diesela eta ongi zaindua. 2004. urtekoa. 84.000 kilometroekin. 7.500 euro negoziagarriak. ☎670 251632.



DENETARIK

salerosketak

Rotabatore ttikia salgai. ☎627 601000.

ORONOZ. Egurra xehetua salgai. Pagoa eta haritza. Etxera eramaten da. ☎676 242520.

Su egurra salgai, lotean edo xehetua. ☎659 867287 / 699 461394.

Pago egurra lotetan salgai. ☎659 867287 / 699 461394.

DONEZTEBE. 12 aulki rustiko salgai. Torneatuak. Gaztain zurarekin eginak. Telletxea altzari-dendan daude ikusgai, nahiz eta partikularrak izan. ☎646 799828.

Ehizako eskopeta parraleoa salgai, JZ markakoa, kanporatzaileekin. 400 euro negoziagarri. ☎619 283278.

Argia egiteko motorra salgai, Honda markakoa. 2 entxuferekin, gasolinakoa. Arrunt gutti erabilia. ☎685 950243 / 697 528657.

DENETARIK

galdu/aurkituak

BERA. iPod bat galdu dut

SANTESTEBAN Tailerrak

KILOMETRO 0etan prezio ezin hobekak!!!!

KANGOO EL PROFESIONAL 1.5 DCI 10 CV KILOMETRO 0!!!	SCENIC III DYNAMIQUE 1.4 DCI 130 CV KILOMETRO 0!!!	MEGANE III EMOTION 1.5 DCI 110 CV KILOMETRO 0!!!

ETA GAIKIA

- Range Dynamique 1.5 Road 1.5 DCI 70 CV
- Megane III Dynamique 1.5 DCI 110 CV - 2010 - 2011
- Scenic III Privilege 1.7 DCI 130 CV
- Kangoo AAK 1.4 DCI 55 CV - 2010
- Megane III Tonic 1.5 DCI 85 CV
- Kangoo Express 1.5 DCI 60 CV
- Cit. Express 1.1 DCI 70 CV
- Range Street 44 110 CV
- Megane III 1.1 115 CV
- Suzuki Grand Wagon 2001 A.T.
- Tata Nanoing Dabir Cabriolet

DONEZTEBeko RENAULT eta KOTXE JA BEHETIAN SERGIANO ESKAINTZAK

AVIA **DONEZTEBEKO** **GASOLINDEGIA**

Zure kotxea garbitu!

Depositoa beteta kotxea garbitzeko fitxa 1€

Depositoa betez gero

GARBIKETA 1€

www.clubavia.es

Larrea E. 49 • DONEZTEBE | 948 451 078 | www.clubavia.es

IRA-GAR-KIA

aldizkarian interneten

8EURO

ttipi-ttapa

948 635 458
www.ttipi.net

Toki Onako aparkalekuan. Norbaitek aurkitzen badu, deitu faborez. Eskertuko da. ☎948 450875.

LESKA. Bereau hotelean giltza multzo bat agertu da. 7 giltza dira, horietako bat ttikia. ☎948 637570.

APIRIKAK 7 **LURDJOTAK**
01:00 - 02:00 DOHAIRIK
02:00etak aintzinerak 04:00etik aurrera bat dohairik 03:30ak arte

APIRIKAK 14 **TRIKIDANTZ**
00:30 9€

APIRIKAK 21 **INGO AL DEU?**
01:00 9€

Lur
www.lurradioa.com

Lur
garagardotegia

Orduak, Nazioarteko Euskararen Gaurak eta...
Guzuzinak

Beatriz

30 urte ondoren... ORAIN:

Beatriz
organizazio zentrua
Centro de Bienestar

Santiago, 53 · ELIZONDO
948 580 283

Kosmetika biologikoa | Makillaje biologikoa | Osagai bionutrizionalak
Ecocert ziurtagiria duten produktuak | Aparatu zertifikatuak
Azterketa pertsonalak doan, gorputzekoak eta aurpegikoak (ordu batekoak)
Osagarriak | Ofertak eta promozioak



ttipi txartelarekin

beti irabazten da!

deskontuak + zozketak + aldizkaria musu truk

Eskatu zurea 948 63 54 58 telefonoz

562. ALEKO IRABAZLEAK

- * AQUARIUM 2 SARRERA
Nati Irungaray Aleman | AZPILIKUETA
- * IKASTOLEN ELKARTEA LIBURU 1
Txirina Kantari | M^o Asuncion Plaza | LEKAROZ
- * ONDDO TA PUNTO KAMISETA
M^o Karmen Almandoz Itzauspe | URDAZUBI
- * URTXINTXA ESKOLA
PUNPALAPLAN CD + DVD
Pello Apeztebena Zubiri | ETXALAR
- * TTIPI SASKIA
M^o Jesus Torres Ondikoi | ETXALAR

zozketak



PUPU ETA LORE CDa
Pirritx, Porrotx eta Marimotots
www.kabixporrota.com



2 LIBURU
Elkar argitaletxea
www.elkartarean.com

deskontuak

FOTO-EREGIKI
GOIKO
BERA | %10 kopia digitaletan

JUAN J. PIKABEA
DONEZTEBE
%10. marka batzuetan ezik

MASTER
ALTZURI
LESACA | %5 atxotzetan

KIRCLIX ZELI
BERA | %5eko deskontua

elika
BERA | %5 kontsultan

txinelka
ZAPATA DENDA
LESACA | %10eko deskontua

AQUARIUM
AQUARIUM 2 SARRERA
Donostiako Aquarium-a
www.aquariumsa.com

oninart
KAMISETA BAT
Oninart denda
www.oninart.com

ARKUPE
Gozotegia - Txokolategia
TXOKOLATE LOTEA
Arkupe Gozotegia
www.arkupegozotegia.com

Urde Lesaka
LESAKAKO UDAL IGERILEKUA
2 SARRERA
Lesakako Udal Igerilekua
www.lesaka.net

ttipi-ttapa

Anduetzeta 12. 31760 ETXALAR
Tel: 948 635 458 Fax 948 635 457
info@ttipi.net www.ttipi.net